

# ARRASATE

## PRESS

Arrasate 1988ko Abenduak 9, 2. zenbakia

### ZALDIBAR FRONTOIAREN ETORKIZUNAZ

Zaldibarreko frontoia estaltzeko proiektua ez omen da berria, baina gaur egun, herriko gairik eztabaidagarrienetakoa bihurtu zaigu. Erakunde ezberdinek dute bertan zer ikusia, eta harreman zuzena dutenak Arrasateko Pilota Elkarte eta Udala dira. Lehen, beraiek daudelako ereglamenduzko pilotaleku bat egitean interesatuen eta Udala, berak duelako kontu honetan azken hitza. Honetaz gain, herritarrok ere zer esanik badugu, gu izango bait gara, erabakia edozein izanda ere, pilotaleku hori erabiliko dugunak. Kontutan izan behar dugu Udalean parte hartzen duten partidu politikoez eritzi ezberdinak dituztela beren artean gai honi dagokionean. Beraz azken erabakia zein izango den ikusteke dago. Egun hauetan zehar Monterroneko kultur etxean proiektuen nondik norakoaren berri izateko aukera.

(8.orr)



Zaldibarko frontoia etorkizuna zalantzan

#### Arriola: Udaltzain bertsolaria.

Arrasatera etorri eta 42 urte bertan udaltzain bezala lan egin ondoren, Debatar hau gure herriaren parte izatera heldu zen. Denak pozik beti ezin utzi, baina bera jubilaziora pozik heldu zela dio. Berarekin egon eta berriketa lasaiean, bere bizitzaz beste zertxo bait jakin ahal izan dugu.

(17.orr.)

#### Ruper Ordorika mintzo.

Arrasaten kantaldia emango duela aprobetxatuz, Oñatiar honekin egon nahi izan dugu, bere nahiez eta asmoez zertxobait konta diezagun.


(15.orr.)

#### ORAIN ETA HEMEN:

- Gautxoriri 30 urtetako gartzela zigorra ezarri diote (6. orrialdea).

- Arrakasta handia lortu zuen Arrasaten izan genuen Gipuzkoako XII. Esku-soinu Txapelketak (6. orrialdea).

- Kilometroak 89 Oinatin egingo da (7. orrialdea).



# Arrasate

# Kirolak

Kontzeziño kalea, 8 - ARRASATE - Tfnoa: 794612



## BEHARREZKO TELEFONOAK

### Eritetxeak:

Arrasateko Eskualde-Ospitalea .....	795300
Igualatorioa .....	790500
Santa Agedako ospitalea (gizonak) .....	793900
(emakumeak) .....	794411
Buru osasunerako zentrua .....	799011
Famili medikuntzarako zentrua .....	790500

### Gurutze gorria:

Bergara .....	765576
---------------	--------

### DYA

Antzuola .....	766291
----------------	--------

### Anbulatorioak

Arrasate .....	795200
.....	791357
Oñati .....	780852
Eskoriatza .....	798896
Aretxabaleta .....	797458
Aramaio .....	(945) 455116

### Anbulantziak:

Gipuzkoako ambulantiak .....	458744
------------------------------	--------

### Udaltzaingoa:

Oñati .....	780411
Bergara .....	761469
Arrasate .....	791439
Aretxabaleta .....	791052
Eskoriatza .....	790322

### Ertzantza:

Arrasate .....	797199
Bergara .....	

### Suhiltzaileak:

Udal taldea .....	790900
Udal taldeko suhiltzaile buruaren helbidea .....	792072
Zubillagako Eskualde Parkea .....	782800

### Matxurak:

Urak (udal zerbitzua) .....	790900
Elektrizitatea (Iberduero) .....	790581

### Garraioak:

Taxiak .....	791222
P.E.S.A. ....	791419

### Hirugarren adinarentzako zetuak:

Iturbide Egoitza .....	797211
Abaroa jubilatuen egoitza .....	798157

### Kontsumitzailearentzako informazioa:

Deba Garaiko kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkartea .....	798777
--	--------

## ABENDUAK 9, OSTIRALA

- Zinea: Alai: "Visiones"  
Novedades (Bergara): "Principe de Zamunda"
- Guardiako farmaziak: Ruiz Torre;  
Ferrerrial 1
- Lurdes Larrañagaren piano kontzertua.  
Bergarako Seminarioan, arratsaldeko  
8etan, "Azaro Abendu Musikala" saioen  
barruan. Bergarako Udalak antolatuta  
Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza-  
rekin.

## ABENDUAK 10, LARUNBATA

- Zinea: Alai: "La sombra del testigo"  
Novedades (Bergara): "Principe de Zamunda"
- Guardiako farmaziak: Santiago Español
- Ruper Ordorika, Amaia antzokian  
10,30etan Arrasate Press-ek antolatutik  
Udalaren laguntzaz.
- AEDk antolatuta, EKB-k Iruñean egin  
duen manifestaldira joateko autobusak  
antolatu ditu. Irteera arratsaldeko 4etan  
Garibaiko geltokitik.

## ABENDUAK 11, IGANDEA

- Zinea: Alai: "La sombra del testigo"  
Aretxabaleta: "Esperame el cielo"  
Novedades (Bergara): "Mejor solo  
que mal acompañado"
- Guardiako farmaziak: Mertxe Corcuera;  
Elcano 2

## ABENDUAK 12, ASTELEHENA

- Zinea: Alai: "La sombra del destino"
- Guardiako farmaziak: J.I. Irizar Erguin 11

## ABENDUAK 13, ASTEARTEA

- Zinea: Alai: "La sombra del testigo"
- Guardiako farmaziak: Lurdes Amezua;  
Santa Marina 32.

## ABENDUAK 14, ASTEAZKENA

- Zineak: Alai: Ez dago sesiorik
- Guardiako farmaziak: Aurora Ruiz;  
Magdalena 3
- Amurizak AEDren eskutik ematen dituen  
ikastaroak gaur amaituko dira.

## ABENDUAK 15, OSTEGUNA

- Zinea: Alai: "El click"
- Guardiako farmaziak: A.M. Morales;  
San Andres
- Zine kluba: Amaia antzokian arratsaldeko  
8,30etan. Aste honetan "El Zorro gris"  
pelikula eskeiniko dute. Zuzendaria: Phi  
llip Borsos. Filma interesgarri honek,  
XIX. mendean jaio eta XX. mendera ohitu  
ezin den "forajido" baten bizitza konta-  
tzen digu.
- Euskal dialektologiari buruzko ikastaroa,  
Txillardegiren eskutik, Monterronen  
arratsaldeko 7etan, gaia Goi Nafarrera  
izango delarik

## MAHAI INGURUA

### GAIA: "GAZTE ENPLEGUA"

**Noiz:** Abenduaren 12an, Astelehena

**Non:** Monterroiko Hitzaldi Aretoan

**Ordua:** Arratsaldeko 7etan

**Partaideak:** LAB, CC OO, UGT, ELA, INEM, EUSKO JAURLA-  
RITZA, CONFESBANK

**MODERATZAILE:** Tonino Mendizabal

**Antolatzailea:** Arrasateko Udala

Gazteriaren Batzordea



# ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

## Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)  
Zeharkale Estalia, 1-1. B  
20500-ARRASATE -TF.797164

**Laguntzailea:** Arrasateko Udala

**Zuzendaria:** Joxe Aranzabal

**Erredakzioa:** Juanlu  
Txubi

**Publizitatea:** Amaia Garro

## Erredakzio

**-kontseilua:** Jose Felix Diaz  
de Tuesta  
Jose Mari Eraña  
Iñaki Mendiguren

**Kolaboratzaileak:** Jose Mari Velez  
de Mendizabal

Mikel Irizar  
Karmele Zuazubizkar  
Jerardo Elortza  
Juan Martin Elexpuru  
Mikel Arregi  
Eukeni Olabarrieta  
Arantxa Lizaso

**Inprimategia:** Gertu Koop. E.

**Banaketa:** Orkatz Skaut-Taldea

**Harpidetzak:** Zeharkale Estalia, 1-  
1b. Tfnoa. 797164

**Copyright:** ARRASATE PRESS

**Lege-Gordailua:**

**ISSN:**

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.



## Egiaren erlatibotasuna

Zer den egia, non datzan eta bertara nola iritsi gaitezkeen asmatzea zaila ezezik ezina dugu gizakiok. Orain arteko egia bakarra, behin eta berriz frogatua, egunkariak dakarkigute, eskela gisa. Orain artekoa diot, izan ere ez bainaiz ausartzen bihar edo etzi zer gertatuko den esatera. Newton-ek, grabitatearen teoria ezalitzen zuenean, ez omen zuen sagarra-rena behin eta betikotzat jotzen. Badaezpada ere... Gizon zuhurra, dudaririk gabe.

Bizitzako loraldia hirurogeigarrenetako hamarkadan gozatu genuenok ongi gogoratzen dugu garaiko gizon aparta izan zen Roger Garaudy. Frantziako Komunista Alderdiaren burukide genuen eta dekada hartan Europan nahiz Iparrameriketean indar handiz zebilen humanismo aurrerakoiaren aitzindari bilakatu zen. Beraren liburu eta artikuluak eztabaidatuak ziren. Europako Unibertsitateetan eta, gezurra dirudien arren, baita gure zirkuluetan ere, ezagunak genituen beraren teoriak.

Behin baino gehiagotan pentsarazi zigun bere esaera entzutetsu hark: "Erreakzionariak bakarrik hiltzen dira".

Frantziar komunistek alderditik bota zuten, marxista eta kristauen arteko elkarrizketa eragiten gogotsu

ziharduen gizona. Ez da batere harri-garria, Frantziako komunistek 68ko Maiatzean edota urte berean Txekoslovakian gertatutakoaz harturiko jarrerara gogoratzen badugu. Garaudy-k askatasuna nahiago izan zuen eta, alderdiarekiko loturatik aske, bere luma zorrotzez gutariko askoren bi-deak argitzen saiatu zen. Maurice Dobb, Erich Fromm, Roger Garaudy... askapenerako filosofia berriaren gidariak genituen, gazte izateak suposatzen duen gure emate osoaz. Egiaren bila ari ginen. Aro guztietako gazteak bezalaxe.

Galdu egin nuen Garaudy-ren arrastoa. Eta zenbait egun direla, harri eta zur geratu naiz Bartzelonan egon dela irakurri dudanean. Eta, noaki, ez naiz Bartzelonan egon delako txunditu, bertan ageri duen teoria berriarekin nondik norakoarengatik baizik. "Islam-ek egiazko askapenerako teologia baten premia du" adierazi du. Hori gutxi bailitzan, "Gaurregun Iran ezik gainerako islamzaleek ez dute erlijio santuaren egia errespetatzen" gehitu du.

Nik ez dut Garaudy salatu nahi, agian "aggiornamento" a niri falta zaidalako. Hori bai, zalantza gehiegi sortarazten dizkirate frantziar-islamiarra-ren egiek.

*Josemari Velez de Mendizabal*



# CHASYR 1979 ASEGUROAK

## GASTEIZ

M. Iradier 15. 233003  
Ordezkaritza

## ARRASATE

E. Gerrikabeitia 79 74 35  
Andoni Conde. 79 60 08

## EIBAR

I. Gerrikabeitia 71 21 39  
Isasi 17, 1., esk.





**ARRATE IRRATIA, S.A.**  
FM - 101,5

Goizeko 9etatik  
Gaueko 11ak arte  
Irratsaio denak EUSKARAZ

ARRATE IRRATIA  
EUSKAL SINTONIA

## eya

T.B., bideoak, Hi Fi ekipoak,  
eta Amstrad ordenadoreak.

Ikus ezazu Grundig aparatu-  
tuen aukera guztia.

Aukera handia lanpara, kar-  
ril, aplike, foko, mahai-gaine-  
ko lanpara etab.etan.

Iturriotz kalea

Tfnoa: 790384



**ASEGUROAK**

Zeuzertara behartu gabe, aseguru  
mota guztien informazioa emango di-  
zugu, zure beharretarako egokiena zein  
den adieraziz.

- \* Etxeko Arrisku Orotarakoa
- \* Auzo-Komunitateko Arrisku Orotara-  
rako
- \* Saltokietako Arrisku Orotarakoa
- \* Enpresa Txiki eta Erdi mailatakoa
- \* Pentsio-Fondoak
- \* Jubilazio-Planak
- \* Istripuak
- \* Bizia
- \* Automobilak
- \* Erantzukizun Zibila
- ... etab

ZURE ESANETARA GAUZKAZU!!

Maalako Errabala, 33-Beheazpia  
Tfnoa. 796900

ARRASATE

## Mondragoeko postalak

Zuzendari jauna:

Euskadi Irratiak antolatuta-  
ko sariketara bidaltzeko asmoz,  
dendara joan nintzen Mondragoe-  
ko postalak erostera. Udalak ate-  
ratako sorta erosi nuen. Bihotza  
jausi egin zitzaidan ia-ia. Zein pos-  
tal triste eta zatarrak! Zein irudi-  
men eskasa argazkiak ateratzeko  
orduan!

Mondragoe ez da, dudarik ez,  
bere edertasunak liluratuta uzten  
zaituen herri zoragarri horietakoa,  
baina baditu bere txoko politak.  
Bilatzen eta plazaratzen jakin  
behar.

*J.Altube*

## Arrasate zain dezagun

Aspaldi honetan hainbat  
proiektu urbanistikoren berri ja-  
kin du prentsaren bidez. Batez ere,  
Zaldibarko frontoiaren eta Gazte-  
luondoko arrabalaren kasuak di-  
tut gogoan. Ni ez naiz ez Zaldiba-  
rren ez Gazteluondon bizi, baina  
herri osoari eta herritar guztiei  
dagozkien arazoak direla uste dut  
eta, beraz, guztion kezka eta ardu-  
ra izan beharko luke gure herria-  
rekin zer egin nahi den jakiteak.  
Nire ustez, gauzak zenbat eta gut-  
xiago ikutu, eta beraz, gure herri-  
ko bi txoko horiek batera ikutu  
gabe utzi beharko liriateke, dauden  
moduan ondo daude eta. Gainera,  
dirua horretan gastatzea baino, ez  
litzateke hobe ibaiak garbitu eta  
bidegorriak egitea, adibidez?

*J.F. Lamarain*

Kaixo, adiskideak:

Jaso berria dut argitaratu  
duzuen ARRASATE PRESS izene-  
ko aldizkariaren 1. alea. Sorpresa  
ederra eman didazuena! Aldizka-  
ria arretaz irakurri eta hainbat  
duda eta galdera gelditu zaizkit

argitu gabe. Esate baterako: Noi-  
zero aterako da? Udalaren boleti-  
na da ala AEDrena? Harpidedun  
izan behar da aldizkaria jasoteko  
ala kioskoetan salduko da? Zein da  
bere prezioa? Galdera guzti hauei  
erantzutea nahi nuke, zeren eta ez  
dut aldizkari osoan batera argibi-  
derik aurkitu horretaz.

*Ane Gesalaga*

## Trafikoaren arriskua

Orain atera berria den Arra-  
sate Press aldizkariak bertan idaz-  
teko irakurleoi eskaintzen digun  
aukera aprobeztatzuz, kexa bat  
azaldu nahi nuke.

Izan ere, San Andres Auzoko  
Alfontso VIII kalen egoten ohi den  
izugarrizko trafikoa dela eta,  
umeren bat kotxe batek harrapa-  
tua izateko dagoen arriskuaz hit-  
zegin nahi dut.

Munar aldean bizi naizen  
ama bat naiz, eta beste zenbait  
amak bezala, egunero nere seme-  
alabak San Andreseko Eskolara  
bidaltzen ditut eta egia esan, ez  
naiz batera lasai gelditzen umeak  
eskolatik itzuli arte. Eta hori, zer-  
gatik? Ba oso erreza da azaltzea.

Esan dudana moduan, Munar  
aldean bizi naiz eta umeak egune-  
ro eskolara joateko Alfontso VIII  
kalea zeharkatu behar dute, horre-  
la umeak egunero kotxeren batek  
harrapatua izateko arriskuan ja-  
rriz.

Horregatik, eskatu nahi nio-  
ke horren ardura daukanari edo  
eduki beharko lukeenari, lehen-  
baitlehen arazo horri konponbide  
bat eman diezaiola, horretarako  
umeak eskolara sartu eta irten  
behar duten orduetan zenbait  
udaltzain jarriz trafikoa zaintze-  
ko, ordu horietan ere sartu eta  
irteten bait bira lanera eta, beraz  
trafiko larregi egoten ohi da.

*Maria T.*



**Ba al dakizu zerbait zaldibarko pilotalekua ixteko dauden proiektoei buruz?  
Zein da zure eritzia horren aurrean?**

**— Rosi Otadui (masajista)**

Beno, esan behar da pilotaleku hau estali gabea izateko sortu zela, dagoen bezala ondo dagoela uste dut, horretaz gain, idi-probak egiteko lekua ere jarri zuten hor ere ditua gastatuz, inolako erabilpenik eman ez diotela. Beraz euria dagoenean edo lainoa dagoenean pilotaleku hau erabili nahi duenak erabil dezala baina dagoen moduan.

Bestalde Iturripeko frontoiak hor ditugu dagoeneko estaliak daudenak, beraz jar diezazkiotela gradak eta han egin dezatela pilotalekua.

**— Estibaliz (etxeko-andrea)**

Oso txarto deritzot Zaldibarko frontoia estaltzeari. Ezta pentsatu ere. Nik leku zabalak atsegin ditut, natura gustatzen zait. Pilotan apostuak egin nahi baldin baditu inork joatea dauka beste toki batetara baina ez dezatela frontoi hau itxi.

**— Juanito Arzamendi (notariako langilea)**

Proiektua aspaldikoa da, ez da orain bapatean sortu. Bi gauza eduki beharko genituzke kontutan: bata Zaldibar dagoen bezala oso polita dela eta bestea Arrasaten oso pelotari onak egon direla eta afizio handia dagoela. Pilota zale hauek herritik kanpo joan behar dute partidoak ikusteko beraz nik ondo ikusten dut Zaldibar Ixtea

**— Mikel Pereda (Ikaslea)**

Ez nago alde. Zatarra dela pentsatzen dut. Horrelako leku bat ez litzateke estali behar.

**— Bittor Salaberri (langilea)**

Bai, zerbait entzun dut, tapatzeko asmoa ei dute eta hemen Zaldibar inguruan bizi den jendea horren aurka omen dago. Dena den, nire eritziz zer egin behar duten izan behar da kontutan, dena ixtea txarto iruditzen zait.

**— Jose Mari Mondragon (Langilea)**

Beno ba, zerbait entzun dut. Hiru proiektu ei daude, baina guk behar duguna, horren informazioa da, zer egin behar duten esan beharko ligukete egunkarietara eta...

Nik dudan informazioarekin, frontoi hau ixtearen alde ez nagoela. Nola estaltzen duten ikusi beharko da, tejabana bat ipini eta argiak jarriko balituzte oso ondo, baina dena itxi? Ez.

**— Jolanda Azpiazu (langilea)**

Ez ez dut ezer entzun.

**— Pedro Sagasta (langilea)**

Bai zerbait entzun dut. Txarto iruditzen zait, frontoia dagoen moduan zuhaitzekin eta, ondo dago. Arrasaten ez dugu ia parkerik eta daukagunak kentzen badizkigute...



**VIGURI, S.A.**

**T.B - BIDEO - Hi-Fi**

Merkatuko markarik inportanteenak eta azkeneko berrikuntza teknologikoak.

**INTERESIK KOBRATU GABE FINANTZIATZEN DITUGU  
ZURE EROSKETAK!!**

**VIGURI, gertuago zeure zerbitzura.**

Iturriotz, 33

Zerkaosteta, 24

Tfnoa:798565

**Urrezko bitxiak  
18 kilatetako legezko urrea**

Erdiko kale 23  
Tfnoa: 792047

**NAROKI**

**Denon artean**

**ARRASATE  
PRESS**



## Marcelino Oreja: 88ko "Europar Gizona"

Joan den astean Estrasburgon, Marcelino Oreja 1988ko "Europar gizon" izendatu zuten. Izendapen honetan zenbait Nobel Saridunek eta Europako instituziotako hainbat goikarguk hartu zuten parte. Simone Veil, Europako Kontseiluko lehendakarisak, eman zion izendapenaren berri.

Marcelino Orejaren aita, izen bereko diputatu karlista eta Unión Cerrajerako zuzendarietako bat, 1934eko urriko greban hil zuten.

Semeak, Donostian jaio bazen ere, beti izan du halako lotura bat Arrasaterekin, gehienbat UCEMeko gerentzia eraman zuen urteetan. Europara jauzi egin aurretik Kanpo Arazoetako ministrari izan zen Adolfo Suarezren gobernuan.

## "Luhartz" Arrasateko diskaetxe berriak kasette bat argitaratu Gabonetarako

"Luhartz", Arrasateko diska argitaletxeak "Gabon Kanta Berriak" izeneko zinta bat argitaratu du. Zinta honetan zortzi kanta agertzen dira, Juan Karlos Irizar oñatiarraren musikaz, eta Arantzazu Loidi atxalbarraren letraz.

Hauetaz gain, azpimarratu

beharra dago beste kolaboratzaile batzuen presentzia lan honetan: Azpeitiako Julian Txiki Abesbatza, Azkoitiako Bizkargi Txiki Abesbatza; Oñatiko Musika Eskolako Akordeoi Eskola eta Pablo Moreno kitarrajolearena.

Grabaketak Musikarten (Donostian) egin ziren eta Oñatiko Santa Ana Antzokian.

Abesti bat azkenengo Abuztuan kotxe istripuz hil zen Elixabete Uribesalgoren omenez eginga dago: "Elixabethi" deritzona, hain zuzen ere.

Hau da argitaletxe honek ateratzen duen laugarren lana. Lehena, Juan Karlos Irizarren bi lan argiratu ditu: "Une ahaztezinak" eta "Udazkenaren arnasa". laugarrenak "Itxaropena" du izena: musika Irizar berarena da, eta hitz gehienak Jon Enbeitarenak.

"Luhartz"ek badauka hainbat proiektu etorkizunerako. hauen artean, baten berri emango dugu: "Telekantak" deitutakoa, haurrentzako abestien diska.

## Kilometroak 89, Oñatin

Hiru ziren 89ko Kilometroak antolatuta gura zituzten eskualdeak: Andoain, Ordizia-Beasain-Lazkao hirukoa eta Oñati. Denek ere maki-

na bat lan egin dute antolaketaren ohorea eta zama irabazi ahal izateko.

Azkenean, Gipuzkoako Ikastolen Federakundeak Donostian Azaroaren hogeitamarrean izandako bileran Oñatiko ikastolari eman zion enkargua.

Gogoratu 89ko Kilometroak Urriaren lehen egingo direla, beti bezala diruak hiru multzotan, Seaska, Nafarroa eta Oñatiko ikastolaren artean banatuz.

## Jose Maria Arizmendiari III. Lehiaketaren emaitzak

Gizabidea Fundazioak antolatutako Jose Maria Arizmendiari III. Lehiaketan, honako lan hauek izan ziren sarituak:

Gaia: Giza Baloreen Aldaketa. -A maila (Irakaskintza Ertainetako 1. maila): Bostgarren saria: 5.000 pta. "Itsasoak begirik ez", Aitziber Nafarreterena (Almen); Laugarren saria: "Kankailuak", Almeneko talde batena Hirugarren saria: 5.000 pta. "Tú eliges", Eduardo Revillarena (San Viator); Bigarren saria: 15.000 pta. "Eguzkiak dena esaten du", Almeneko talde batena; Lehenengo saria: 25.000 pta. "Dónde está el hombre perfecto", Raquel Arroyorena (San Viator).

# J. Markiegi.

## Gizonezko jantxidenda.

Olarte kalea, 4. Tfn:791532.

ARRASATE.



**KILI-KOLO**

Ferrerias 21 Tfnoa.797006  
ARRASATE

## ARRASATE PRESS

Zure publizitatea egiteko lekuri egoki  
eta merkeena herrian bertan



-B maila (Irakaskintza Ertainetako 2. maila): Hirugarren saria: 10.000 pta. "Old chap", Jon Ugartebeitia eta Jon Sasetarena (Eskola Politeknikoa); Bigarren saria: 20.000 pta. "Ver y meditar", Ander Etxebarria eta Mikel Etxeberriarena (EP); Lehenengo saria: 30.000 pta. "Pello Lapiko Mike", Juan M. Uribarren eta Kepa Ezkurrarena (EP); Akzesita: 5.000 pta. "Transformación de valores humanos", Javier Garcariarena (EP).

-C Maila (Unibertsital Irakaskintza): Bigarren saria: 40.000 pta. "Los valores de la década de lo privado", Bernardo Aracamarena (EP); Lehenengo saria: 60.000 pta. "Giza baloreen aldaketa azkenengo 40 urteotako homilietan", Ane Miren Zugazartaza (Irakasle Eskola).

Sari banaketara Donostiako gotzaila den Jose Maria Setien etorri zen. Epaimahaia Jose Ramon Elortza, Jesus Garmendia, Jose M<sup>a</sup> Mendizabal eta Julian Serranok osatu zuten.

### IX. Gipuzkoako Akordeoi Lehiaketa eta I. Gipuzkoa 88 Jaialdia izan zen joan zen astebukaeran Arrasaten

Larunbatean hasitako IX. Gipuzkoako Akordeoi Lehiaketa eta I. Gipuzkoa '88 Jaialdiari amaiera eman zitzaion joan zen asteartean Amaya antzokian.


Lehiaketan 36 akordeoijolek hartu zuten parte, eta Jaialdian, berri, beste 92k.

Epaimahaia Max Bonnay eta Jacques Mornet frantziarrek, Bogdan Precz poloniarrek eta Bilboko Kontserbategiaren zuzendaria den Jose A. Hontoriok osatu zuten.

Honako sari hauek banatu ziren: -*Hasierako mailan* (12 urterarte): 1. Leire Arrieta; 2. Olatz Mujika; 3. Nerea Lujanbio. Sariak: trofeoa eta diplomak. -*Ertaineko mailan* (12-15 urte); 1. Flor Fernandez, trofeo, diploma eta 50.000 pta, 2. Iñaki Alberdi, diploma eta 40.000 pta; 3. Fernando Alvarez, diploma eta 25.000 pta. -*Senior mailan* (16 urtetatik aurrera): 1. Angel Luis Castaño, trofeoa, diploma eta 150.000 pta; 2. Aitor Furundarena, diploma eta 100.000 pta.; 3. Xabier Iridoi, diploma eta 50.000 pta.

Lehiaketa Gipuzkoako Akordeoi Konfederakuntzak antolatuturik zegoen, eta miloi t'erdiko aurrekontua zeukan. Aurten, bigarren aldiz egin da Arrasaten.

Hurrengo edizioetarako, lehiaketari naziorteko maila eman nahi diote antolatzaileek. Esan behar, baita ere, lortutako maila artistikoa oso ona izan zela.



### 30 urte "Gautxori"ri

1980ko Martxoan Azkoitian izan zen atentatua prestatzea leporatu diote Jose Gabriel Urizar Murgotio, "Gautxori" arrasatearrari.

Ondorioz, 30 urtetako gartzela zigorra jarri diote.

Frogatutzat jo du epaileak "Gautxorik", beste hiru kiderekin batera, lehergailu bat jarri zuela Azkoitian bizi zen goardia zibil baten kotxearen azpian. Lehergailua txarto itsatsita, antza, eta kotxea martxan jartzerakoan lurrera jausi zen, bertan gelditu zelarik. Jose Maria Piris umeak ostikada jo pake-teari eta bertan hilda gelditu zen. Bere laguna Fernando Garcia larriki zaurituta gelditu zen.

## LASAGABASTER

## JANTZIDENDA

Bertan izango duzu beti modako gauzarik onenen aukera zabalena

Garibai, 9 Tfnoa:798997

ARRASATE



## Bat etortzea zaila denean

Zaldibarko Frontoia herri honetan pilotaleku hutsa baino gehiago da. Gutariko gehienok txikitan makina bat jolas egin dugu bertan; batean, zibuluetan gora eta behera, hurrengoan, futboleko edo pilotan. Laster, baliteke Zaldibarko ingurune horren egiturak aldaketa handi samarrak izatea; hau dela eta, gure barnean jakinmina sortzen da, herri honek hain bere-berea sentitzen duen lekuaren etorkizunaz.

### — *Aspaldiko kontua*

Zaldibarko frontoia ixteko proiektua ez da udalbatza honen ideia izan, aurreko korporazioak konpontzeke utzi zuen arazoa baizik. Gaur egun, gure udalean dihardutenek erabaki bat hartzeko unea heldu dela ikusi eta frontoia dagoen bezala utzi edo aldatzea erabaki baino lehen, hiru arkitekto eskatu diete, beren proiektuak aurkez ditzaten, behin betiko erabakia hartu ahal izateko. Maketa edo antzeko zerbait eduki ezean, bidezko erabaki bat hartzeko gai ez bait zituzten beren buruak ikusten.

### — *Hiru arkitekto, biru proiektu*

Arkitektoek, beren proiektuak egiteko orduan hiru baldintza eduki behar izan dituzte kontutan: Erreferentzi historikoak: Zaldibarrek gure herriaren historian paper garrantzitsua jokatu izan du. Oñatiarrek eta arrasatearrek dokean jokatu zituzten behin, Arrasateko lur batzuk. Gaur egun ikus dezakegun frontoia 1900 urterako bageneukan, handiek eta

txikiek urtetan zehar jolaserako erabili duten lekua. PERI delakoak ezartzen dituen arauak ere kontutan eduki behar izan dituzte frontoiaren egitura diseinatzeko orduan; eta azkenik, AUKEA kirol erakundeak ezarritako baldintzak ere, kontutan edukitzekoak izan dira. Azken baldintza hauek, hiru mailatan banatuta izan dira: oinarritzkoak, hau da, frontoiak arauzkoa izateko behar dituen neurriak; interesgarriak eta gomenda-

tuen bi munduak” hitzekin definitzen du bere proiektua, berau egiteko 206 milioi pezetatiko aurrekontua aurkeztu duelarik.

Linazasorok, bere aldetik, “pilotalekua hirigunetzat hartzen da eta ez kanpo aldera itxitako polikiroldegitzat, nahiz eta betetzen dituen barneguneen arauzko baldintzak eta gutxieneko erosotasunak” esanez aurkezten digu proiektua, 167 milioitako aurrekontua prestatu duelarik.



*Zaldibarko frontoia gure historiaren lekuko*

garriak. Hauetatik bete behar-beharrezkoak oinarritzkoak izan dira.

Premisa hauek oinarri gisa izanik, Alberto Pombo, J. I. Linazasoro eta J. M. Toledo arkitektoek beren lanak aurkeztu dituzte. Lan hauek hilabete honen 18 arte Monterroneko kultur etxean ikusi ahal izango ditugu.

Pombok “pilotaren katedrala eta pilotari-fabrika izatea dira proiektu honek elkartu nahi di-

Azkenik Toledok “konponbide arkitektonikoak, kanpo/plaza eta barne/pilotalekuaren arteko oreka osoa lortzen du, beti ere, jatorrizko dimentsio espaziala mantenduz” hitzak esaten dizkigu bere proiektua aurkezterakoan.

### — *“Ez dugu pilotaleku profesional bat nabi”*

Guzti honetan inplikaturiko beste erakunde bat Arrasateko Pilota Elkarte da eta bere eritzia garbi azaldu digu.




Erakundearen ustetan, Arrasaten pilota eskola iraunkorra sortzeko arautuzko baldintzak betetzen dituen pilotalekua behar dute eta honetaz gain, lau frontoi txiki, mutiko gazteak trebatuz joan daitezten. Une honetan 200 mutikorekin dihardute lanean, berauen trebakuntzarako baliabide egokirik gabe. Elkartek, Zaldibarko frontoia estaltzeko proiektuak aurrera ez zuela egiten ikusirik, beste proiektu bat aurkeztu zion Udalari. Proiektu honen arabera, frontoi berria Ferialean eraikiko litzateke, bertan dauden eskolen alboan.

Dena dela, pilotaleku erreklamenduzko pilotaleku horretan, dela Zaldibarkoan dela beste batean, sistematikoki partidu profesionalak jokatzearen aurka azaltzen da elkarteak; eta profesionalak jokatzekotan, urtean zeharko jaiegun berezi edo ospakizunetan bakarrik (Santamasetan, San Juanetan...) izatea nahiko lukete, eta beti ere, elkartearentzako laguntza ekonomikoa lortzeko, momentu honetan Udalak luzatzen dizkion diru laguntzez eta harpidedunek kuota gisa ematen duten diruaz baino ez bait dira bizi.

— **Proiektuaren aurka biztanle talde bat bildu**

Zaldibarko frontoia ixteko



proiektua dagoela eta herritar talde bat horren aurka jokatzeko asmoz bildu da. Zaldibarren, inork arazorik sortu gabe, urtez urte pilotan jokatu izan dela ikusten dute. Ez dira arauzko frontoi bat egitearen aurka azaltzen, baina bai Zaldibarren egitearen aurka. Herrian esanahi historikoa duten eraikuntzak, gutxinaka gutxinaka desagertuz doazela ikusten dute, horri muga bat jarri behar zaiola esaten digutelarik. Bestalde, proiektua aurrera eramatea erabakiko balitz, bertan dauden zuhaitzak desagertuko lirateke, lehendik ere herrian ugari ez direnak.

Galdera asko planteiatzen dituzte: pilota bultzatzeko erarik

onena, frontoi erreglamentarioa egitea da? Auzoetan pilotaleku txikiak egitea ez al litzateke hobe izango? Beste kokagune posible-rik hartu da kontutuan? Denok izango al dugu pilotaleku hau erabiltzeko aukera?

Beraz momentuz proiektuari aurre egiteko lehen pausu gisa, firma bilketa eramango dute aurrera, gerora begira beste ekintza batzuk antola ditzaketelarik.

Zaldibarko frontoiaren etorkizuna datorren urteko lehen hilabeteetan erabakiko da. Argi dago frontoia estali ala ez pentsatzekoan, Arrasatear guztiok honetan ez garela bat etorriko. Erabakia behintzat denon onerako izan dadila!


## ONTZI Oparidenda

Zatoz eta aukera ezazu Arrasateko denda berri honetan zure oparia

**Kurtzetxiki plaza, 2 behe. Tfnoa:797390**



## Canovasen hilketa



Canovas

Canovas, Angiolillo anarkistak hil zuen Santa Agedako Bainuetxean 1897ko Abuztuaren 8an.

Antonio Canovas del Castillo, Malagan jaio zen 1928an eta 17 urterekin Madrile-

ra aldatu zen Zuzenbide ikasketak egitera. Oso gazterik sartu zen politikan eta 1894erako Barne-Arazoetako ministrari zen. "Liberal-Conservador" alderdi eskuindarraren buru, joan den mendearen bigarren zatiko espainiar politikorik boteretsuena izan zen. 1873tik heriotze egunera arte Gobernuburu, tarteko urte banaka batzuetan salbu. Canovas izan zen 1876an Euskal Herriko Foruei azken estokada eman ziena. Berak bultzatu zuen legeria liberala zen paperaren gainean; hauteskunde "libreak" egiten ziren, baina errealitatean kazikeek diruz erosten zituzten botoak, amenazuz ez zenean, eta parlamentua bi alderdi ia berdintsuk antzeztutako teatroa besterik ez zen.

Mende bukaera aldera mugimendu anarkista indartsu zegoen Penintsulan. Canovasek 1884ean argitalpen eta talde anarkista guztiak legez kanpo utzi eta gogor pertsegitu zituen. Ondorengo hiru urteetan, pilaka atxilotu zituen poliziak eta ehundaka garbituak izan ziren, epaiketaz zein

epaiketarik gabe, Bartzelonan, bati-pat.

Michele Angiolillo Suitzako Lucernan jaio zen (Italiako Formia-n, beste iturri batzuen arabera), 1870ean. Tipografoa, Londresen ari zen lanean Bartzelonako bere erki-deen sarraskiaren berri jakin zuenean. Berehala bengatzea erabaki zuen. Rinaldini izeneko kazetari bat (Angiolillo) agertu zen Santa Agedara, Canovas oporretan zegoen lekura, 1897ko Abuztuko hasieran, egun batzuk igarotzera.

Canovas, eguerdiko hamabi t'erdietan, gelatik irten eta bazkal-tzera zihoan. Jangelara joateko, jardinera ematen duen galeria bat zeharkatu behar zuen eta galeriako banku batean eseri zen. Hiru pistola-tiro sartu zizkion. Lehenengo buruan, bigarrena bizkarrean. Hirugarrena, lurrean zegoela. Ez zuen ihes egiteko ahaleginik egin. Poliziek atxilotu zain, geldi geratu zen bertan, kontzientzia bake handiz.



Angiolillo

Juan Martin Elexpuru

## Elhuyar taldekoan kolaborazioa

### Mikrouhinez higitutako abioiak

Sharp izeneko abioi honek orain dela hilabete batzuk egiten du hegan Kanadako zeruan. Aireratzeko baterria bat dauka, baina ehun bat metro-tik gora, antena paraboliko baten bitartez igorritako mikrouhinak dira motore elektrikoari behar duen energia ematen diotenak.

4 metroko, 5 kiloko eta gidariak gabeko abioi honek 20 kilometroko desplazamendu-altuera daukanez poluzioaren kontrolean eta telekomunikazio-arloan prestakizun handiak eman ditzake. Airean higitzeko behar dituen 25 kW baino gehiago hornitzen dizkio mikrouhinezko sistemak. Energi gehigarri hau abioiak daraman ikerketa-tresneriaren mantenimendurako erabil daiteke; kontutan hartu Espazio-Agentzia Europearreko Olympus sateliteak 2 kW besterik ez dituela eginbehar horretarako. Gainera Sharp-a komunikazio-sateliteak baino bost aldiz merkeago da.

Desabantailarik garrantzitsuenak lurreko zentru igorleen menpe dagoela da, beraz, zentru hauek etengabe funtzionatzen egon behar dute. Baina honen ondoan abantaila nagusi bat dauka eta hau erregairik ez izatearena da. Pentsa ezazue espaziuntzien masaren %85a erregai dela eta masa hau erretzen denean hondar-gasak atmosferan zehar hedatzen direla.

Gainera, abioia nahi denean berreskura daiteke geroago berriro erabili ahal izateko.

Joxerra Aizpurua


ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI BADUZU  
EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK .....  
HELBIDEA .....  
HERRIA .....

Zeharkale Estalia 1, 1. b 20500 - ARRASATE - Tfnoa: 79 71 64



H  
E  
R  
R  
I  
G  
I  
N  
T  
Z  
A  
N



## CAJA LABORAL POPULAR LAN KIDE AURREZKIA

- ▶ Euskal Herri osoan ordezkaturik da-  
goen Kutxa bakarra gara.
- ▶ Euskal Lehen Enpresa-Taldearen bul-  
tzatzaile garen Entitatea.
- ▶ Eta gainera... hona gure gaztetasuna:

**1959**

**1988**

Lehen Bulegoa	190 Bulego
Lehen Bezeroa	725.000 Bezero
Lehen Milioia	221.000 Milioiko aurrezkia

...29 urtetan soilik.

- ▶ Zatoz elkarlanean parte hartzera.

**Horrexegatik,  
Lan Kide Aurrezkia  
"Euskadiko Kutxa" da**



**CAJA LABORAL POPULAR  
LAN KIDE AURREZKIA**

Euskadiko Kutxa



# Canovasen hilketak

Canovasen enakirik gabeko Barbizonar, baita  
 Aragoiar

RAJONAR

LAN KIDE AURREZKIA

Amara, Ca-  
 novas del Castillo,  
 Madagari 1980 eta  
 1928 eta 17  
 edukiak inbentario

1988 eta 1989  
 1988 eta 1989  
 1988 eta 1989  
 1988 eta 1989

1988 eta 1989  
 1988 eta 1989  
 1988 eta 1989  
 1988 eta 1989

1988 eta 1989  
 1988 eta 1989  
 1988 eta 1989  
 1988 eta 1989

1988 eta 1989  
 1988 eta 1989  
 1988 eta 1989  
 1988 eta 1989

1988 eta 1989  
 1988 eta 1989  
 1988 eta 1989  
 1988 eta 1989

1988 eta 1989  
 1988 eta 1989  
 1988 eta 1989  
 1988 eta 1989

## Elhuyar taldekoan kolaborazioa

Mikrouhinaz higitutako abizak

Sharp zenetako abizak honak  
 dela hitz batek batzuk dituzte

Kanovasen abizak

ria bat dauka, baina ez da

liko gora atera, puzatuta

naiz, baina ez da

naiz, baina ez da

naiz, baina ez da

naiz, baina ez da

naiz, baina ez da

naiz, baina ez da

naiz, baina ez da

naiz, baina ez da

naiz, baina ez da

naiz, baina ez da

naiz, baina ez da

naiz, baina ez da

naiz, baina ez da

naiz, baina ez da

naiz, baina ez da

naiz, baina ez da


naiz, baina ez da

naiz, baina ez da

naiz, baina ez da

naiz, baina ez da


ELHUYAR TALDEKOAN



ARRASATE PRES ZEURE DOHAIN JASO NAHI BADUZU

UNDEDIPARRAZ ZITEZ HARPIDAIDUN

IZEN DUTIA



ARRASATE

ARRASATE - 00500 - 1. etalera - 79 71 64



☞ “Zoritzarrekoa gure artean sortu, jaiο eta hazi den haur tonto samar edo ikasle txarra! Horrelakoentzat ez dago etorkizunik. Subnormala edo, jaiο balitz behintzat, erreztasun batzuk izango zituen: ikaskuntza bereziak, lanpostu babestuak, etab. Baina bere adimena erditik behera bada go, baina normaltasun batean, etorkizun beltza dauka”

(Pablo Letona, TU-LANKIDE)

☞ “Kooperatibismoa, niri oso fenomeno interesgarria iruditzen zait exekutiboen omnipresentziaren, langileen alienazioaren eta segurtasun-sistemekiko eta hobe-kuntza iraunkorrerako sistemekiko mesprezuaren aurrean”.

(Ramon Tamames ekonomilariak, Ikasbiden)

☞ “ETBko informatiboak oso txarrak dira, eta euskaraz bikoiztutako pelikulen ahoskatze eta dikzioa, jasangaitzak”

(Pako Aristik, DVn esana)

→ “Fortuna handien sortzaileak, mendeku sen edo instintuak bultzaturik, gaztarotik botere eta eragipenaren bila ibiltzen dira, eta lan egiteko duten gaitasuna izugarrikoa da. Osasuna ere beharrezkoa da aberatsa izatera heldu ahal izateko. Etorkizunari begira, beti kezkatu agertzen dira, beraientzat dirua egitea ez hiltzeko beste era bat da”.

(Pierre Beaudeaux, kazetari frantziarra, “Munduko fortunarik handienak” izeneko liburua-ren egilea).

## Uste duzu arrasatearrok ondo informatuta gaudela Arrasaten gertatzen denaz?



Kontutan izanik lau egunkarik (Egin, Deia, Diario Vasco eta Correo), herri mailako informazioa ematen ditugutela, eta orain dela gutxi beste bat (ARRASATE PRESS) sortu denez gero, hau bai, euskaraz eginda eta herriko informazioarekin bakarrik osatua, esan daiteke ondo informatuak gaudela.

Ondo informatuak zenbait gauzatzaz, esan nahi dut, denok dakigu argitaratzen denaz aparte, herri mailan beste gauza asko mugitzen direla, eta askotan nahiz eta berri horien atzetik ibili, zaila egiten da, ezineskoa ez esateagatik, informazio hori kaleratzea.

Informazio horrek, askotan kaleratzen ez den horrek, kontenido politiko handia du, eta nire ustez behintzat, hori da jendeak nahi duen informazioa.

Hau da, Herriari interesatzen zaion gai bati buruz, alderdi politikoek eritzi ezberdinak dituztelarik, askotan erabaki bat hartu arte jendeak ez du ezagutzen berri hori.

Nire ustez askoz ere interesgarriagoa izango litzateke jendearen iritzia jaso eta gero erabakiak hartzea. Hau informazioa kaleratuz lortzen da.

Lorea Zeziaga



## BILBO ASEGUROAK

Enrique Mendieta Ugarte  
Agentea

Kontzezlño kalea, 6 behea  
Tfnoa: 798677

ARRASATE

## Jose Aranzabal

ELEKTROGAILUAK  
Iturriotz 15  
Tfnoa: 791516



AKOBEREren garantia eta zerbitzu teknikoarekin



FAGOR SUKALDEEN HORNIKETA OSOA - OPARIGAIK

Doctor Bañez 8, Tfnoa: 791892



## \* Lan-Merkatuaren zentsua

Prospektiker enpresak Deba Garaiko 1.300 familia inkestatuko ditu lan -merkatua gaurkotzeko. Inkesta honen helburua formazio eta birziklapen profesionalen beharrak gure eskualdean zeintzuk diren jakitea dugu. Lan hau Eusko Jaur-laritzak, Eskualdeko Komitearen bidez, eraginda dago.

Inkestatzaileei laguntzeko eskatzen zaio jendea-ri.

## \* Erdibidean

Bukatu berri dira Antzuolan eta Errenterian datorren urterako Euskadiko

Bertsolari-Txapelketaren finalerako Gipuzkoako kanporaketak. Bost ziren Leintz Bailarako ordezkariak, Danel Goikolea, Felix Iñurritegi, Jon Iñaki Isarzelaia, Arantzazu Loidi eta Aitor Sarasua. Azkenean, finalean ezin sarturik gelditu dira.

Finalerako ziurtatuta zeuden hamalauetatik, beraz, Jon Sarasua dugu ordezkaria bakarra. Txapela irabaziko ahal du!

## \* Enpresa berria

Honez gero hilabete pasatxo da "IGM-Inmuno-diagnostikoak" kooperatiba berria sortu zela Arrsatzen, SAIOLANen eskutik eta

Lan Kide Aurrezkiaren kredituekin. Beren zereginna, gaixotasunak antzemate, laborategi aktibakorrak erabiliz. Maila horretako lehen enpresa dugu Gipuzkoan.

Bi urte behar izan dute hainbat ikerketa eta Gipuzkoako Foru Aldundiak ordaindutako bideragarritasun-estudioa egiteko, baina azkenean lortu dute. Hona hemen aitzindari hauen izenak: Ana Astiazaran (biologoa), Iñaki Zallo (kimikoa), Jon Alberdi (medikua) eta Carmen Carmona (kimikoa). Zorte on!

## \* Bost artzapezgo gipuzkoarrek gazteri monitoreen eskola sortu Aoazaran (Aretxabaleta)

Datorren Abenduaren 27an, Aretxabaletako Aoazaraz auzoan Gipuzkoako bigarren monitore-eskola sortuko da. Beste bat Al-tzon dago kokatua.

Eskola Elizbarrutiko Gazteri ordezkariak antolatuta dago, eta aisialdi-monitore eta kristau taldeak eratzea izango da bere helburua.



jme  
**epelde** Argazkilaria  
Iturriotz, 24 Tfnoa: 791971

**BAZAR**  
TOKI ON

Elektronika artikuluen  
salmenta

**Gabonetako merkealdi izugarriak**

J. Carlos Guerra, 1 - Tfnoa: 799164



Eskola honek esparru zabala hartuko du bere gain: Arrsate, Bergara, Eibar, Zumarraga, eta Azpeitiako artziprestaldeak.

Eskola berri hau Aza-tzako apezetxean kokatuko da, berau berritu ondoren; Kurtzebarri barrenean, Urkulu urtegiaren ondoan, ingurune aparta, benetan.

**\* 150 larruzko jaka lapur-tu Oñatin**

150 bat larruzko jaka eta zenbait zapata pare lapurtu zituzten ezezagun batzuek joan zen astebu-kaeran Oñatiko Aldasoro dendatik.

Lapurtutakoaren ba-lia, pezetatan, 5en bat mi-lioitakoa da.

Antza denez, atzekal-deko lehia batetik, 10 me-trotako horma eskalatu ondoren, sartu omen ziren "besterenaren zale" hauek, harrapakin ederra lortuz, dudarik gabe.

**\* Liburutegi berria Esko-la Politeknikoan**

Joan den Azaroaren 21az geroztik zabalik dau-de Eskola Politeknikoko

liburutegi berriaren atea-k. Astelehen goiz eta ostiral arratsaldetan ezik, Eskola-ko ikasleen zerbitzura egongo da liburutegi berri hau. Sarrera dohain izango dute.

**\* San Nikolas koronado**

Aurten ere, jaiegun ba-tekin kointziditu badu ere, jo eta ke ibili dira gure gaz-tetxoak kalez kale San Ni-kolasen Bolo-boloa jaso-tzen. Izara zabaldu, gaztai-nak, urrak, gozokiak etab. ahalik eta gehien biltzeko eta eztarriak urratu arte!

Aurtengorako ez bada ere, beste batzuetarako he-men doakizue abesti eder horren letra:

“San Nikolas Koronado / Arzobispo Mariandres / a la luna noche y día/ etxe-koandre noblia / egizu, egi-zu pilia.

San Nikolas / Triskilis-tras / dame una gaztaina / y no quiero más.

Aqui estamos cuatro / cantaremos dos / para San Nikolas / por amor de Dios.

Belengo portaleko / ate zabaletan / Hotzak ikaraz dago / Jesus lastoetan.

Angelitos somos / sus-pi-suspiramos / lukainka-txorizo / neskai bapez (dana) / mutilei dana (ba-pez)”

**Denborapasen soluzioak:**


**GURUTZEGRAMA:**

**Ezker-eskuin:** 1 Apaltze, 2 Kuraiak, 3 Iraulka, 4 Ttu.Air, 5 Uzta.LI, 6 Aiuta. E, 7 Klaxona.

**Goitik-behera:** 1 Akituak, 2 Purtzil, 3 Arautua, 4 Lau. Atx, 5 Tila. Ao, 6 Zakil. M, 7 Ekarlea.

**ASMAKIZUNAK**

1 - Jostorratza, 2 - Botila, 3 - Gutuna, 4 - Pertsona, 5 - min-gaina, 6 - Mahaia, 7 - Edurra, 8 - Puzkerra, 9 - Posta seilua, 10 - Artaziak.



JOSTAILUAK  
MODELISMOA  
IRRATIKONTROLA

Erdiko Kale 19  
ARRASATE  
Tfnoa: 791787




**JESUS ELKORO**  
ELEKTROTEKNIKA  
TB - HIFI - BIDEO  
Tfnoa: 791886 ARRASATE



# Inoiz esan dut ni Rock-a gabe idiota izango nintzatekeela

Duela zortzi urte agertu zen Ruper Ordorika euskal musikaren plazan, lehendik ere aski eza-guna bazen ere inguru literariotan. Hiru LP, esperimenteren bat eta emanaldi ugariren ondoren, musiko mardula bilakatu da Ruper. Ez da kantari tradizionala, zenbait momentutan tradizioaren eragina igartzen bada ere bere lanean. Ezin esan, era berean, modako kantari abangoardista denik, nahiz eta musika berrienarekin harreman nabariak dituen bereak. Estilo berezia lortu du, testu mamitsu eta kantatzeko era oso pertsonala erabiliz. Ez da kantari multitudinarioa izatera iritsi, oraingoz, eta auskalo hori nahi lukeen ere. Baina denbora labur baten buruan, "El último de la fila" koekin aurkeztu da jendaurrean, "Hertzainak" taldearen azken diska produzitu du eta Madrileko sala batek kontzertu-sail interesgarri batean parte hartzeko aukeratu du. Oraina, iragana eta geroari buruz mintzatu gara Ruperrekin, Arrasatera etorri bezperatan.



—Oñatin jaio nintzen, 1956an. Oso kinta ona, bide batez esanda, Johnny Rotten eta, urte horretan jaio bait ziren. Aita-amak Bilbotik etorriak ziren eta nik 12 urte nituela hona etorri ginen, Gasteiza. Beraz, nahiz eta nire ume denbora guztiz euskalduna izan, Euskal Herriko erdal partean bizi izan naiz gehien bat. Eta hau aipatzen dut niretzat kontraste honek inportantzia handia daukalako. Bilbon egin nituen Filologia ikasketak -orduan ez zegoen euskal filologiarik- eta gero, soldadu joatera behartu nindutenean, han erabaki nuen "nik kantuan egin behar dut, horixe delako gustatzen zaidan gauza bakarra".


Etxean, umetan, beti entzun izan

dut musika. Aparte, berbenetarako musika egiten zuen talde asko zegoen garai hartan, bai Oñatin eta bai inguruko herrietan, Escápolis, Expresión Sonora, etab. Eta guretzat hori gauza handia zen, nolabaiteko transgresio bat zen. Gero, irrati ruralean trikitrixa eta ematen hasi zirenean, asko entzuten nuen eta asko gustatzen zitzaidan. Bestalde, lagun batek bazuen irrati bat Radio Luxemburgo hartzen zuena eta han hasi nintzen Free, Cream etab ezagutzen. Baita ere Dylan, Donovan eta horrelako kantariak. Rythm-blues ere bai. Eta Gasteiza etortzean, hemengo giro erdaldunak kolpatuta, nire kasa zerbaitetan

hastea pentsatu kolpatuta, nire kasa zerbaitetan hastea pentsatu nuen, baina euskaraz. Orduantxe ikusi nuen lehenengoz euskal kantari bat, Benito Lertxundi, kantu tradizionalen bidetik hasi zenean. Donovanen euskal bertsio bat entzun nion eta harrituta gelditu nintzen ikusiz euskaraz egin zitekeela nik nahi nuena. Gainera, euskaraz egiteak bazeukan orduan transgresio puntu bat gaur egun ez daukana, eta nik asko estimatzen nuena. Eta guk musika jotzen genuen, beste arrazoi askoren artean, nagusiei ez zitzaielako batere serioa iruditzen, ez da?

Geroago, COU eginda, Londresa joan nintzen. Eta han, nire auzoan, bazen klub bat non Dr. Feelgood-ek jotzen zuen, Wilko





Johnson-ekin, beltzez jantzita eta ile motzarekin, munduan Genesis eta antzeko taldeak nagusi zirenean. Hura rokan-rola zen eta ze fuertea! Folk-klub bat ere bazegoen inguruan eta bertan ezagutu nintuen gerora asko estimatu ditudan musikoak. Handik itzultzean burua erabat aldatuta neukan, hemengo maila oso apala zen, teknika aldetik, eta asko ikasi beharra zegoen.

Unibertsitatean nengoela, eta Deustun zentsurarik ez zegoenez, kantaldi piloa antolatu genuen eta han izan nuen nik euskal kantari gehienak ondo ezagutzeko aukera. Batzuek ekintzaz - zer egin behar zen- eta beste batzuek omisioz - hauxe da juxtu nik egin behar ez dudana-, denek izan zuten nigan eragina. Eta horrela, soldatu eraman nindutenean hartu nuen kantatzeko erabakia, eta hartan eklosio handia zegoenez, lehen diska prestatzen.

-Timido samarra dirudi Ruperrek, lehen kolpean. Kantalditan ere serio agertzen da zenbaitetan. Baina gaurko elkarrizketa erraz ari da sortzen, etenik gabe. Ruperren hitza sendoa da, ez du

pontifikatzen, baina asko irakurri, pentsatu eta hitzeginez landutakoaren pisua dario bere mintzoari.

- Lehen diska egitean, Pott-en garaiak iraganak, Bernardo Atxagaren testuetara jo nuen, erabat identifikatuta eta liruratuta nengoe-lako testu haiekin. Musika aldetik, berriz, nire esparru musikal osoa erakusten saiatu nintzen, bertsoak, molde zaharrak erabiliz neuk eging-dakoak, kantu kontenporaneagoak... Horretarako musiko oso ezberdinez baliatu nintzen, baina gerora denek -hor zeuden Potatoko Oloki, Hertzainak-eko Josu Zabala, Anjel Zelada, Bixente Martinez- erakutsi dute zer zeramaten barruan. Dena den, diska hark ez zuen harrera erabat ona izan, behin eta berriz esaten zidaten ez zela ezer ulertzen, elitista zela etab. Gaur beste modu batean baloratzen da, entzulegoaren maila ere igo egin da, baina ni pixka bat kezkatu egin nintzen eta hasi nintzen kantuen egitura eta gehiago pentsatzen. Eta bigarren diskarako beste era bateko kanta prestatzen hasi nintzen. Bestalde, nire atal oso

fuerte bat rok-a da, inoiz esan dut ni rok-a gabe idiota izango nintzatekeela. Horregatik behar nuen molde bat ez bakarrik adierazten denaren indarrak baizik eta adieraztean ere indartsua. Eta bigarren diskan hasitako prozesu hura hirugarrenean mamitu da. Dena dela, atal guztiak ditut gogoan, denek osatzen dutelako nire lana.

-Henry Bengoa aipatu diot. Arrakasta handia izan zuen literaturaz eta musikaz osatutako emanaldi bitxi hark. Orain kasetez eta liburuz kaleratu da, Durangoko azokan. Eta Ruperrek maitasun handiz gogoratzen du esperimantu hura.

-Lehenik, emanaldi hura Joxe Mari Iturralde, Bernardo Atxaga eta hiruron arteko harreman estuaren emaitza da. Eta harreman hori oso inportantea izan da niretzat, oso ondo sentitu naiz elkarlanean, bakkarkako sorkuntzan oso oihartzun eskasa topatzen da askotan. Bestalde, nik uste dut Atxagak asmatutako egitura hori benetako aurkikuntza bat dela, lehegailu bat. Inolako planteamendu didaktikorik gabe, obra honek erakutsi zuen garbi gazteek ere senti dezaketela literaturaren lilura. Ez dute behar bada liburuak irakurtzeko joera handirik, baina hori izan daiteke erreakzio bat oso inposatuta datorkielako gazteei irakurri beharra. Hemen aipatu behar da, baita ere, hizkuntzaren arazoa. Guk bagenekien aurrean geneukan entzulegoa euskalduna zela eta sentitzen genuen jendea harrapatu egiten genuela. Hor ikusten dira euskaraz ikasten aritearen fruituak, ez genuen inolako hizkuntza arazorik izan.

Labur esateko, nire burua inplikatu dudan gauzen artean, Henry Bengoa izan da hobekien funtzionatu duena, dudarik gabe.

-Hor sortu da komunikazioaren arazoa. Nola lortzen da? Edo lortzen al da beti? Ruperren jarrera serio hori konszientea ote da?



–Batuetan konszientea da, bai. Kantalditan egoten dira gorabehera asko guk kontrolatzen ez ditugunak, kalean jotzea, sonoritatea... Edo entzulegoa euskalduna hala erdalduna den ere garbi antzematen da. Batuetan hitzegiten hasi eta badirudi ispiluaren aurrean ari zarela, eta oso enblematiko bihurtzen da dena. Zeren aktuazioa da kantuararen aurretik esaten dena ere. Eta horren aurrean nik urteetan zehar hartu dut jarrera itxi hori, gutxi presentatu, nirea egin eta ikusi ahal duenak ikus dezala. Azken finean, normaltasuna galdu egiten da. Horregatik, herri euskaldunetan jotzea plazer handia da kantariarentzat.

–Adierazgarri izaten da musikoak zer-nolako musika entzuten duen jakitea, zein iturritatik edaten duen, edo zein uretan bustitzen den. Ruperren kasuan ere horrela da.

–Aspaldian ez dut irratirik entzuten. Lehen denetarik entzuten nuen, baina orain hari jakin batzuk segitzen ditut. Bata, musika tradizionalarena, mundu osokoa baina batez ere britanikoa. Uste dut badagoela hari atlantiko bat gugandik askotan mediterranea baino hurbilago dagoena. Baita ere, oso gustokoa dut tradizionala izan gabe hor edan eta gaurko hizkuntzaz egiten den musika. Ez nau harritzen Suzanne Vegak eta fenomeno guzti horrek. Baita ere, oso inportanteak izan dira niretzat Nick Lowe, Ian Dury, edo Elvis Costello. Eta zaharagoak ere, Ry Cooder, John Hyatt, etab. Azkenaldi honetan asko entzuten dut Princeren musika, zerbaiten abiapuntua iruditzen zait, milenioaren pertsonaia bat, gure kulturatik aparte dagoena eta nik berriz, oso ondo ulertzen dudana. Eta hemengo musika tradizionala ere asko entzuten dut. Aspalditik daukat asmoa nik bakarrik diska bat egiteko kantu zaharrekin, gehienbat Bizkaiakoekin, baina askotan aipatu dut eta ia ez dit inork sinesten. Azkenik, trikitrixa tristea asko gus-


tatzen zait, Sakabiren joera hori. Trikitrixari buruz esan zidan behin batek hemen dagoen gauza aberats bakarra dela. Zein egia handia! Nik uste dut trikitrixaren inguruan sortuko dela molde berriren bat euskal musikarentzat. Bestalde, herri gehienetako musikan badago soinuaren moduko instrumenturik eta oso gauza politak egiten dira. Eta orain, Paul Simonek egin duen lanaren ondotik, guzti hau oso asumitua dago.

–Amaitzeko, euskal musikaren egoeraz mintzatu gara. Eta luze mintzatu ere. Ruper baikor agertzen da euskal musikaren etorkizunaz, baldin eta oztopo batzuk gainditzea lortzen badu.

–Gai honetaz, arbola aurre-aurrean daukat eta beharbada ez dit basoa ikusten uzten. Dena dela, uste dut aldaketa handia egon dela “euskal mugimenduak”, onartu duenetik erdaraz kantatzea zilegi dela. Talde asko sortu da. Orain problema da jakitea zein den euskal taldea eta zein ez. Baina, beno, euskarazkoen artean, gauza politak ateratzen ari dira, eta aterako dira urte gutxiren buruan. Desegin berri

diren taldeetan ere badago jende ona, gauza onak egin ditzakeena.

Hala ere, aurrera egiteko beharrezko ikusten dut hemendik irte-tea. Beti hemen bueltaka ezin gintezke ibili, urteoro herri berdinetara joanez. Kanpora irtete hori ona da, baita ere, buru-osasunerako. Badira, noski, oztopoak: ez dago distribuzio normalik, hizkuntza bera ere zailtasun bilakatzen da. Nik, adibidez, uste nuen Kortatuk euskaraz kantatuta salduko zuela erdaraz kantatuta bezainbat, baina hori ez da horrela izan. Baina, hizkuntza oztopo bat dela aitortuz, pentsatzen dut badagoela horren atzetik jarrera historiko bat irtetearen aurkakoa. Orain gutxi arte, kanpora joatea nork bere burua saltzea zen. Eta egon dira hemen ateratzeko posibilitatea izan dutenak eta atera ez direnak. Nik hori errore historikotzat kontsideratzen dut. Nire ustez, kanpoan ere egon daiteke entzulegoa gure estiloa edo esateko modua edo jarrerak onartuko dituenak, guk kanpokoak onartzen ditugun bezalaxe. Eta horrek gure lan-moldeak aldarazten baditu, ba nik hori onartzen dut eboluzionatzeko bide bezala. Oso positiboa izan daiteke. Hala bedi.





# **RUPER ORDORIKAREN**

## **KANTALDIA**

**Kanta politak eta musika ona atsegin baduzu**

**Ordu terdi bat benetan ondo pasa nahi baduzu**

**Aspaldiko partez, primerako kontzertu bat entzun nahi baduzu**

**Zatoz gurekin**


### **RUPER ORDORIKA**

**eta MUGALARIS taldeak eskainiko duten emanaldira**

**Larunbat honetan Amaia Antzokian**

**Arrasate Pressekek eta Udalak Antolatua**





**GABONETAN...**

**EUSKARAZKO OPARIAK**

1. EUSKARAZKO:  
- Jostailu didaktikoak  
- Liburuak  
- Diskak  
- Kaseteak  
- ...

**GURE AHOLKUA: EROS ITZAZU EUSKARAZKO OPARIAK**

- Zeure seme-alabak euskaldun legez hezteko.
- Euskal kultura euskaraz eta gertutik ezagutzeko.
- Zuk zeuk ere, euskaraz bizi behar duzulako.
- Geurea eta hurbilekoa ezagutzetik hasteko.
- Lagun eta adiskideei ere, geure-geurea dena eskaintzeko.

Arrasateko Udala  
Euskara Batzordea

EUSKARA ZERBITZUA







## Urrak, Retegi II.aren bikotea osatu, eta irabazi


Gure herriko pilotari profesional bakarra den Juan Jose Urrak, Retegi II.a txapelkunarekin bikotea osatuz, jolasteko aukera izan zuen astelehenean Eibar-ko Astelena pilotalekuan.

Uribarriko pilotariak bazuen kartel on baten beharra bere balioa erakusteko, orain arte beti erdi mailako pilotariekin jolasten zebilen eta.

Urrak atzekaldean jokatu zuen, aurrekaldea Retegi II.ak oso ondo zaindu-ta zuelarik.

Adituen esanez, oso fin ibili zen arrasatearra: sake guztiak itzuli zituen, bi huts egin eta hiru tanto lortuz.

Partidua Bengoetxea IV. eta Aldazabal II.aren aurka jokatu zen, eta 22-17



Urra-Retegi II.aren aldeko emaitzaz bukatu zen. Apostuak beti naparraren eta arrasatearraren alde egon ziren.

## Mountain Bike I. Euskadi Txapelketa

Datorren Abenduaren 10 eta 11an Mountain Bike I. Euskadi Txapelketa egingo da. Txapelketa "Gasteiz Mendi Taldeak" antolatuturik dago.


Honako kategoria hauek ezarriko dira: kategoria femenino bat (16 urtetatik aurrera); eta hiru maskulino: junior (16-18 urtetakoak); pro-am (19-35 urtetakoak) eta senior (35 urte baino "zaharragoak").

Hauetaz gain, proba honetan parte hartu, baina konpetitu nahi ez edota Federakuntzako lizentzia ez dutenentzat, promozio-kategoria bat ezarriko da.

Konpetiziokoa, proba hauek osatuko dute: 4 kilometrotako erloju kontrako jaitsiera; 2 kilometrotako

Finantzaketa: Hileko 9000 pta.tik hasita

## FIAT UNO



## KANPAZAR

Bizkaiko etorbidea, z/g - Tfnoa: 79 41 98 - ARRASATE

Arabako etorbidea, 4 - Tfnoa: 79 77 66 - ARRASATE




KULTUR FISIKO ZENTROA

### PAKO KARRETERO

Kontzeziño Kale Estalia  
Tfnoa: 79 97 31 ARRASATE

## URIARTE Sport


Kiroleterako materiala  
Olarte 6 - Tfnoa; 79 27 78



## EGIDO Ordezko Piezak

### Automobilerako ordezko piezak

Legarre Pabiloia. Tfnoa: 79 62 11



Iturriotz,9 Tfnoa:799457



slalom paraleloa eta 22 kilometrotako rallya.

Badakigu bailara honetan mountain bike-zale asko dagoela, hortaz, animatu eta txapelketara!!

## Mondra eta Pedrusko, gorantz

Mondra, joan zen astean Real Union taldeari 1-4 irabazi ondoren, sailkapenaren zazpigarren postuan dago. Oso kanpaina irregularra ari da egiten denboraldi honetan, baina, badirudi gauzak zuzentzen ari direla eta, pixkanaka, gorantz doala.

Igande honetan Atxabalpen Mutriku taldearen bisita izango dugu. Esan behar mutrikuarrak sailkapenaren azkeneko postuetako batean daudela, hamazazpigarrenean, hain zuzen ere. Aukera ona beste bi puntu gehiago eskuratzeko.

Pedruskoa, bestalde, izugarritzko kanpaina ari da burutzen Arabako *Preferentean*. Azkenengo garaipena lortu ondoren, 2-1 Zaramagaren kontra, bigarren postuan aurkitzen da, Abetxukoren atzetik.

Aste honetan kanpoan jolastea tokatzen zaio, Aranbizkarraren aurka.

Horrela segituz gero, hirugarren mailara igotzeko aukera izango du. Sailkapeneko lehenak automatikoki igotzen du, bigarrenak *promozioa* jokatu behar. Ez litzateke interesgarria izango Arrasatek bi talde Hirugarren mailan izatea?

Zabalduren xurruurraren arabera, kanpaina bikain hau dela eta, Pedruskotik Mondrara jokalaritza batzuk pasatzea baliteke. Hierro atze-

laria izan daiteke hauetariko bat. Baina, oraingoz, xurruurrak beste-rik ez dira.

## "Buyokeriak"

Nola utzi aipatu barik TVE-ek azken larunbatez eskaini zigun Real Madrid eta Atletico de Madriden arteko partidua? Bereziki Buyo atezainaren joku zikina, axerikeria eta antzeskeria. Partiduko txistulariak ez ei zuen ezer ikusi, baina bai telebistaren objektibo hotzak.

Honek, sarritan errealitatearen ikuspegi zatikatua eskaintzen digu. Baina maiz ezkutuko trapu zikin asko argitu ere bai, kasu honetan bezalaxe.

Irudi honen eraginez arbitroaren erabakiak aldatzeraino hel daitezke, Buyo zigortuz eta Orejuelari-kasu honetan errugabea barkatuz. Hala izatekotan, tantu bat onartu beharko genioke askotan hain gutxietsia izan dugun kaxa leolari.

## Astebukaera atletikoa: emaitza onak

Arrasate Kirolak taldeko atletek oso emaitza onak lortu zituzten denboraldiaren bigarren iharduketan, joan zen astebukaeran Donostian.

Honako emaitza hauek lortu ziren: gutxieneko marka bat Espainiako Junior txapelketarako; bi, Euskadiko Absolutu eta Kadeterako; Arrasateko *record* absolutu bat eta beste bat berdindua.

Jose Antonio Gayk gaintitu zuen Arrasateko *recorda* 200 metro-tako lasterketan: 22.7 (Espainako Junior Txapelketarako gutxieneko).

Juan Karlos Martinek 60 metro-tako hesi-lasterketan herriko *recorda* berdindu zuen: 9.3 (eskuzko kronometraia).

Raul Canalesek, bestalde, 300 metro-tako lasterketan 40.4ko markarekin Euskadiko Kadete Txapelketarako gutxieneko lortu zuen. Eta azkenik, Abel Parrak altuera-jauzian 1,80 metro-tako marka lortu zuen, eta honekin Euskadiko Txapelketa Absoluturako gutxieneko lortzen du.

## Wim Lambrechts belgiarrak Aretxabaletako ziklo-krossean irabazi

Wim Lambrechts, gazte belgiarrak izen berri bat idatsi zuen Aretxabaletako ziklo-krossean palmaresean. Lehenengo biran, bigarren pasatu zen helmugatik, Mateo Hermansen atzetik, hain zuzen ere.

Bigarrenetik aurrera, guztiz bakarrik egin zuen lasterketa. Inor ez zen izan Lambrechts-i jarraitzeko gauza.

Mateo Hermansek, publikoarentzat txirindularirik erakargarriena, garbi utzi zuen forma onenean ez dela aurkitzen.

Pako Sala, berriro ere, Estatuko azkarrena izan zen, hirugarren postua lortuz.

Hauexek izan ziren lehen bostak:

- 1- Lambrechts (Belgika): 1-02-49
- 2- Vervaet (Belgika): 1-04-08
- 3- Pako Sala (Lotus): 1-04-48
- 4- Iñaki Cendrero (PD): 1-05-17
- 5- J.M. Yurrebaso (Caldeyff): 1-06-27

PERFUMERIA

# ERTZ

OPARITARAKO ARTIKULOAK

Ferrerias 28 - B - Tel 790870 - ARRASATE (Gipuzkoa)

## UGARTE

### Industri hornidurak

Arrasate pasealekua

Tfnoa: 797300-8396

Telefax: 793412



## GALERIA 44

Artea gogoko dutenentzat berri on bat: Arrasaten arte-galeria batek bere ateak zabaldu ditu.

Bilbo eta Valentziako Arte Ederren fakultateetako ikasle izandako Zubizarreta Oñatiarren ideia dugu honako hau.

Berez, galeria gela txiki bat da, non hilero Euskadiko eta Estatu lanik aurrerakoienak esekiko bait dira.

Galeria honen nahia artista berriak ekartzea da, ohizko paisaiarenildotik baztertzen direnak; "gauza berriak erakutsi nahi ditugu", esandigu Zubizarretak.

Erakusgela nagusiaz gain, badira beste gela txikiago batzuk ere, apainketarako altzariak, oparigai edo erregaluetarako artikulak eta zeramika-bildumak dituz-

tenak (euskal zeramika nahiz katalana, edota Talavera, Cuenca eta La Bisbalekoa). Galeriak artea eta etxearen apainketa bateratzen ditu, edo asmo horretan dabil behintzat. "Etxeko txoko maite horrek giro askoz pertsonalagoa lortzen du bertan objektu artistiko bat ipintzerakoan, ohizko den zer-bait jartzerakoan baino", Zubizarretaren esanetan.

Hilabete honetan Urangaren lana dugu erakusgai, Bilboko Arte Ederren fakultateetik datorkigun artista gaztearena. Beste batzuen artean artistaberrien saria jasozuen margolari honek, eta Euskal Herriko nahiz atzerriko zenbait erakusketatan ere hartu du parte.



Honakoan tankera txikikoa 36 koadro ekarri digu berauetan Expresionismoa bizi-bizian agertzen zaigularik. Hauxe da irudizko lengoiaren artean garratz eta bortitzena, protesta kutsurik gehien

gordetzen duena, gizadiaren atsekabea hobekien azal dezakeena. Erakusketa hau abenduaren hamabosterarte luzatuko da, une horretan Arregi arrasatearrak leku koahartuko duelarik.

Azkenez, esan behar gure txoko honetatik beti txalotuko dugula artistaberri hauen lana kaleratuko duen edozein iniziatiba. Zorte on!

### ARRASATEKO ARTISTEI DEIA.

San Frantzisko Xabier ikastolarako anagrama diseinatzeko lehiaketazabalik dago. Nahi duenak parte har dezake, irabazleak 75.000, pezetatako saria jasoko duelarik. Derrigorrez bi koloretako anagrama izan beharko du, sinboloaz eta honako testuaz osaturik: "San Frantzisko Xabier ikastola". Datorren Abenduaren 12an amaituko da lanak aurkezteko epea.



Ezagutu itzazu P.V.C.ren bitartez gaur egun eskura dauzkazun leiho miresgarriak, ez hotzik, ez berorik, ez soinurik...

SAN MIGUEL S.L.

KÖMMERLING

P.V.C.zko LEIHOGINTZA

Gral. Garro 2 eta Uribarri Etorbidea 20.  
 Tfnoak: (943) 70 24 12 - 79 99 58  
 20500 ARRASATE (Gipuzkoa)



## Azokaren oihartzunak

Durangoko liburu eta disken azoka amaitua de, baina bere oihartzunekhor diraute. Dagoeneko aski ezagunak dira plazaratutako emaitza berriaketa ez gara horretaz arituko. Baina bai disketxetako arduradunekin elkarrizketatzean agertutako puntu batzuez.

Disketxen egoera, oro har, ez da txarra. Hainbat urtetako lanaren poderioz, lortuak dituzte kalitate oneko produktuak ateratzeko gai den azpiegitura tekniko eta katalogo orekatua. Errentagarrien diren diske ordaintzen dute, batz best, defizitarioen zuloa, eta salmentek, orain dozenabat urteko boomaren adinako ez badira ere, kopuru onargarri bateninguruan diraute. Badago, hala ere, puntu poolemiko bat: Euskal Herrian erdaraz egiten den musika ere euskal musika ote den hala ez. Eta iritziak kontrajarriak dira. Hauxe zioen, adibidez, Elkar-eko Jose Mari Goikoetxeak:

Guk rock-a, edo klasiko, edo haurrena izan, ateratako guztia euskaraz ateratzen dugu eta aterako ere. Egun batean posible bada, ba igual meloiak saltzera dedikatuko gara, baina ez dugu

hizkuntzaz aldatuko. Nik, pertsonalki —Elkar inplikatu gabe— salatu egiten dut erdarazko rock radikalaribetoa altxatzeak suposatzen duen jarrera aldaketa. Eta amorru ematen dit, rock radikala dela eta, euskal musika zein den kuestionatu beharrak, orain arte garbi egon bait da euskaraz egindakoa bakarrik zela euskal musika.

IZ-ren partetik, Txuma Urrutiak honela zioen:

IZ-ren izenpean argitaratzen den guztia euskaraz egiten da. Guk aukerahori egin dugu eta besteek erantzun beharko dute zergatik sartzan direnbeste arlo batzuetan. Beharrezko ikusten dugu gure lanak euskaraz argitaratzea. Zenbait produkzio errentagarriago izan zitezkeen, baina gu ezgoaz bide horretatik, guk euskarazkoa landu nahi dugu.

Azkenik, Oihuka-ko Marino Gofüren eritzia:

Guk euskarazko eta erdarazko lanak argitaratzen ditugu. Nafarrak gara etaagian horregatik "barkatu" egiten zaigu ausardia hori. Donostiarrak izangobagina, orduan infernuko zulora boteak izango ginen. Gu Barrikada, La Pollaeta horiekin hasi ginen talde horiek hor zeudelako eta bide bat behar zutelako. Gero fenomeno desmadratu egin zen eta inork espero ez zuen boom-a izan zen.

Orain ia bere onera itzultzen ari da, parametro normalagoetara. Dena den, euskararen arazoa latza da. Euskal Herriatik kanpo ez dute euskaraz kantatutakorik nahi. Beno, entzulegoak agian bai, baina banatzaileak eta dendariak jartzen dituzte oztupoak. Eta honen aurka, gurehalegin guztiak alferrikoak izan dira.

Arazoa hor dago. Zein de zure eritzia?

### KORTXEAK:

The Sugar Cubes islandiarrak Txibisto-n izan berriak ditugu, kontzertubikain bat ematen. Musika freskoa, orijinala talde honena, kantatzen duen neska eskimalearen ahotsa aipagarri delarik. Akats bat aipatzekotan, zuzeneko emanaldiak diskak baino bizitasun gehiago ez edukitzea. Dena den, eskainiko diogu aipamen luzeagorik talde interesgarri honi.

Txibisto-n ere —hori martxa!— abenduaren 11an, 21 Japonesas donostiarrak eta Tam Tam Go. Zarata handirik gabeko musika indartsua. Gomen-dagarria.

Eta, noski, larunbatean, abenduak 10, Ruper Ordorika, Amayan. Euskal musikari aspaldi sortu den kantaririk interesgarriena, eta Arrasate Press-ek bereziki gomendatzen dizuna.

Mikel Irizar

## ENTZUN GAITUZUE? BA, ARI GARA!!



MUSIKA TRESNAK - Tfnoa: 79 29 09

### AHOLKULARITZA

## URRATS

CARIBAY, 3

Tfnoa: 79 87 74

ARRASATE



AHOLKULARITZA

ERAÑA

OROTARAKO ASEGUROAK

Kontzeziño kalea 4 - behe

Tfnoa: 79 83 95

ARRASATE

## OSTARKU DANTZALEKUA

Hezurak astintzeko lekuri aproposena

Urbarri Etorbidea 8 - Tfnoa: 79 84 83



## Txitxar-opila

Inork gutxi daki txerri-koipearekin postre goxorik egin daitekeenik. Oraindik ere baserriarren batek merkatura saltzera ekartzen duen postre goxo hau zelan egiten den jakitea ez zaigu samurra gertatu.

Txitxar opilaz ari gara, eta errezeta San Andres auzoko Etxeburu base-riko Rafaela Zuazubiskarrek emandakoa da. Txitxar opila txerria hil eta egu-netara prestatzen da, txerri koipea urtu ondoren lapiko barren eta ertzetan geratutako azalarekin. Lehenengo ogi-orea egin behar da. Ogi egiteko libra bat inguru irin mahai gainean piloan jarri eta hazkarri xehe-xehe apur bat gehitu, okindegietan saltzen den horietakoa. Piloari potxoa egin erdian eta ura gehitzen den neurrian eskuaz landu. Gatz pittin bat bota. Azkenean, masak ez du mahaian erantsita geratu behar. Honi deskantsatzen utzi behar zaio. Bitartean txitxar azala birrindu eta azukrearekin nahastu, rodiloa gainetik behin eta berriro pasatu. Hartu ogi-orea eta txitxarra eta azukre nahasia, eta eskuaz eta rodiloaz landu. Utzi aparte harrotuta geratu arte. Orduan, rodiloa gainetik pasatu eta zentimetro pare bateko sendoeraz utzi. Moztu norberak nahi duen neurrian eta gainetik marratxoak egin. Bota azukrea eta labean sartu. Suak ez du o so bero egon behar bestela ertzak kiskaliko zaizkio eta. Erositakoa janz gero, on dagizuela! Eta zeuek egindakoa bada... ere bai.

Karmele Zuazubizkar

## Eibartarrak harra

Hurrengo ere egongo dira harro eibartarrak! Igandean prestatu eta jan zuten makailao piloak du errua. Record berria lortu ei dute eta Guinness libu-ruan agertuko da hemendik aurrera he-riaren izena.

## Revillaren pastela

Ona, oso ona egongo zen Revilla jaunak etxera eraman zuen pastela, hori esan zuen behintzat behin eta berriro. Bagabiltza errezeta harrapatua guran, eta komando bat iparraldera eta beste bat madrilerara bidali ditugu horretarako. Aste honetan Madrilgoek zerbaiten usaina hartu dute eta ea datorren aste-rako lortzen dugun zorioneko pastela zelan egiten den jakitea.

## Eroski Kontsumatzaileen Komitea Informazioa eta Formazioa

Gure bulegoa: Uribe Auzoko Eroski dendan



Torre Auzo, 9  
Tfnoa: 943/781956

OÑATI

# IOSU

argazki denda  
argazkilaritzako materiala,  
erreportalak eta bisuteria

Olan 11

Tfnoa: 79 92 60



omu, s.l.  
mosaikoak

ZERAMIKA-ERAKUSKETA

Otalora, 1 - behea  
Tfnoa: 79 07 20

# IKER

Sukalde Erakusketa

Udala Plaza, z/g  
Tfnoa: 79 00 43

Bainugela-Erakusketa

Zarugalde Kalea, 52  
Tfnoa: 79 99 42

ARRASATE



Gehienetan, osasunaz hitz egiten dugunean bata txuriak, kontsultategia, anbulategia, ospitalea... bururutzen zaizkigu; eta guzti hau beste kontzeptu zabalago baten zati bat besterik ez da, eta zati negatiboa gainera.

Osasun/gaixotasun egoera dugu kontzeptu hau; eta kolektibitatearen inguru osoaren konposaketa eta aldakuntzatara (fisiko, ekologiko, mental, sozial... eta abarretara) bai indibidualki bai kolektiboki, moldatzeko egiten diren erreakzioak besterik ez da.

Beste modu batean esanez, komunitatearen bizimodu sozialaren produktu osoa dugu. Osasun/gaixotasunaz hitz egiterakoan, batez ere bakarka eta kolektiboki, inguruarekiko oreka ekologikoaz mintzatzen ari gara, derrigorrez oreka horren ondorio bezala osa-

suna edo gaixotasuna gertatuko bait zaigu.

Horregatik, astekariaren atal honetan, osasunarekin loturik dauden gai ezberdinak: elikadura, kirola, lana, ekologia, ingurugiroa, urbanismoa, heziketa, harreman afektiboak, komunitatearen behar sozial eta kulturalak,... ukituko ditugu.

Osasuna, noski, faktore hauen, eta aipatu gabeko beste askoren ondorio bat delako. Kontzeptu tradizionalari jarraituz gure osasuna mantentzeko aholku batzuk emango ditugu, baita ere osasun hori galdu dutenentzat gaixotasunetik suspertzeko; baina gure asmoa, osasuna gai bezala ukitzen den sekzio batean normalki aurkitzen dena baina gehiago ematea da.

Noski, ohartxoak ez dira faltako, baina gure ideia nagusia hau da: komunitatearen bizimoduaren osagaiak eta gure osasunean daukaten oihartzuna azpimarratzea, baita salatzea ere, behar bada.

Derrigorrez, osasun sektoreaz ezin dugu hitz egin, ezta komeni ere, bizimodu sozialetik kanpo dagoen gauza bateaz bezala, alderantziz, aurrerabide ekonomiko-sozialaren ondorioa dela esango nuke. Baina, ez da edozein aurrerabiderena, baizik eta Pertsonaren benetako beharren erantzuna. Hau da, inguru, natura eta komunitate guztiari dagokion erantzuna izango dena.

*Arantxa Lizaso*

*Eukeni Olabarrieta*



## AUKERARIK ZABALENA LENTILATAN

- gogorak
- porodunak
- bigunak
- kosmetikoak
- erabilpen iraunkorrekoak

**Egoki geratuko zaizkizun garantia osoa!**

**Eta bestela, LENTILEN ORDAINA ITZULIKO DIZUGU**

**Zure betaurreko eta lentilen aseguroa, dohain**



# azoka plazan

- San Bitorreko irakasle bik pisu bat alokatu behar dugu. Deitu bazkalorduetan: - Tere: 94-4625909.-Julu: 94-4676767.
- Pisu bat salgai Aretxabaletan. Bedarretako S.Migel kalea,11-1 ezk.
- Pisu bat alokatu behar dut Arrasaten. 94-4359334. (Mari Karmen).
- Pisu bat erosi edo alokatu nahi dut. Presazkoa. Tfnoa: 4372223.
- Etxebizitza indibiduala salgai. 2 solairu eta 22 m<sup>2</sup> tako lurrak inguruan.Tfnoa eta altzariekin. Hondarribia kalea. Interesatuak dei 796591ra.— Prezioa elkarrekin erabakitzekotan —.
- Pisu bat salgai herri erdian. Izagirre plaza,4. Bainugela, 2 logela, egongela, ganbara. Informazioa: 794218.
- Eguzki Dorrean: pisu bat salgai. 3 logela, egongela, bainugela, 2 logela, ganbara.796765.
- Pisu bat salgai Arrasaten. Etxe Oste kalea, 6-2.D. 3 logela, egongela, jangela, 2 bainugela, sukaldea, garajea, ganbara zabala eta berokuntza sistema indibiduala.
- Esperientziadun neska batek etxeko garbiketak eta umeak zaintzea bezalako lanak egingo lituzke. Tfnoa. 796190—799420.
- HI-FI ekipoa salgai. Garantia du. Philips markakoa. MiDi motakoa bere altzariarekin. Merke. Aramaiona kalea 4,5.D. Galdetu Fabirengatik 2etatik 5etara edo 8etatik aurrera.
- Kontsultategirako lokal bat salgai.(100m<sup>2</sup> baino gehiagokoa). 797632.
- Merkataritzarako lokal bat salgai.(100m<sup>2</sup> baino gehiago).797632.
- Alokatzeko pisua behar da Arrasaten. Tfnoa:793952.
- Garaje - toki itxi bat salgai Villanparon. Galdetu gauetan 795528 telefonora.
- Ikasle bat behar da Bilbon pisu bat osatzeko. (Udaletxearen inguruan, 3 gela indibidualak ).
- 25 urteko neska ezkondu batek etxeko lanak edo antzerakoak egingo lituzke orduka arratsaldetan. 798634. Tere.
- Leku onean, pisu bat alokagai: 3 logela, egongela, jangela, sukaldea eta bainugela. Balkoiak ere baditu. 795392.
- Altzariak dituen pisu bat salgai. Maitena kalea,Arrasate. 140m<sup>2</sup> . Sukaldea, egongela, 2 bainugela, 3 logela, kristaleria bikoitza. Propanozko berokuntza. Hari musikala. Garajea (14m<sup>2</sup>). Tfnoa: 795058.
- Pisua salgai Arrasaten. Deitu lanegunetan, goizeko 9etatik 12etara. 791011. Juan Jose Alkala.
- 60m<sup>2</sup>tako lonja bat alokagai, 30m<sup>2</sup> ditu behegainean; egokia biltegi, bulego, etab.etarako. Baditu argindarra eta ura. Erroguin auzoan. 791114. (gaueko 9etatik 10etara).
- Pisua salgai Aretxabaletan. Tfnoa:796845.
- Pisua salgai, Nafarroa 8 - 4 esk. Aretxabaleta.
- 16-21 urte bitarteko neska bat behar da, Arrasaten umeak zaintzeko. Nahitaezkoa euskaraz hitz egitea.
- Baserria erosi nahi dugu Arrasate inguruan. Saltzekorik baduzu telefono honetan aurkituko gaituzu: 751878. Abeldoz galde ezazu (Goizez mesedez, 8etatik 14etara)
- Masaialaria Arrasaten. Masaia terapeutikoan diplomatua Uribe 16, 2.a ezker. Informazioa 797655 (Ines. 8etatik 10etara).
- Mantenimendu gimnasia, Erguin ikastetxean. Orduetgia 7etatik 8etara. Informazioa 798072 (Jose).
- Esperientzia duen neska prest dago etxeko garbiketak eta umezaintza bezalako lanak egiteko. Tfnoa: 796120.
- Garaje plaza hartuko nuke errentan. Tfnoa: 799511 (Pello Barrutia. Fagor).
- Ingeleseko klaseak ematen dira, talde txikitik, egun osoan zehar. Tfnoa: 791870.
- Pisua hartuko nuke errentan. Tfnoa: 799525 (gauetan).
- Neska prest dago asteburuetan umeak zaintzeko. Tfnoa: 791890 (Josune).
- Pisua salgai Aretxabaletan. Hobekuntzekin. Tfnoa: 794338.
- Ume bateko familiak pisua hartu nahi du errentan Aretxabaletan 18 hilabetetarako. Interesatuak dei 797029 telefonora.
- Injineritzako 3garren urteko ikasleak pisua nahi du taldean bizitzeko. (945) 225661.
- Lan egingo nuke umeak zaintzen edo etxeko lanak egiten. (Elena 763590).
- Portaeskiak saltzen ditut prezio onean. Deitu 790900 (Jose Felix).



## ANASTASIO AGIRRE MURO

(Jaunak zeruan izan beza)  
Abenduaren 6an hil zen, 90 urte zituela.

Bere emaztea, Rufina; seme-alabak, Koldo eta Miren; iloba, koinatu-koinata, loba, lehengusu, eta gainerako ahaideak, gertaera triste honen berri ematen, Jesusek esanaz oroitzen dira: "Neu naiz biziterra eta bizia, niregan sinisten duena, hilik ere, biziko da". (Jn. 11:25)

Bergaran, 1988ko Azaroak 15.



## Azken eskutitza

1. kapituloa 1988.eko Azaroak 24

Hogei urte izan dira, Kox, hogei urte; segundu batean ahoskatzen den zenbakia. Segundu luzea da, ordea, sakona; sarreran barna abenturatzeko kemena duten argi izpiak bere bide makurrean galtzen dituen tunel ilun luzea.

Behar zintudan, egia esan. Edo, agian, laguntza behar nuen, norbaiten laguntza, hain galdua ikusten bait nuen nire burua etorkizun eten batean naurrean. Aitorrek bost urte besterik ez zuen; Maitane, bere bi urtetxo bete berriekin, ez zen oraindik nire magalatik banandu. Egoera horretanutzintzintzen Iñakik betirako, Jesukristoren adina zuenean. Orduantxe izan nituen, izan, erlijioarekiko lehenengo duda serioak. Jaungoikorik izatekotan, putakume bat behar zuen izan. Horrenbeste agure zahar nazkante oraindik hor, ahal bezala eusten, urteak eta urteak zerutiko deiaren zain, eta nuen euskarri bakarra seko moztu bapatean. Hamabi urte dira jada metzetara joateari utzi niola.

Amarenean aurkitu nuen babesa, etxe propiorik ez bait genuen ez eta alogelakorik ordaintzeko lain. Lur jota nengoan. Amaren pentsioak ezin zion familia baten mantenuari eutsi. Horrez gain, Aitor ikastolan hasi berria zan.

Jainkoak bere okerraren ordainean bidalia zinela pentsatu izan nuen behin baino gehiagotan, itxaropenez.

Idazkari lanetan aritu nintzen garaian nire nagusia zenaren dei batetxean jasotzerakoan, berriro ere lanean hasteko eskaintzaren batespenero nuen. Ni ez nengoan une hartan

eta amari utzi zenion enkargua, zeinek konpondutzat eman zituen hala gure arazoak. Halaeta guztiz ere, San Antoniori kandelatxoa piztu zion gau hartan, gure etxean zegoen saindu bakarrari, eta otoitz ere egin zuen luzaroan.

Ez dakit, bada, sainduak zerikusirik izango zuen horretan, baina, biharamunean, goizeko hamaiketan, zure bulegoan, igarri nuen beste nonbaitetara jotzen zutela zure gurariet. Arratsalde hartan paseatzera irten nintzen eta ilusio eta asmakizunez bete nuen burua; parketik pasatzerakoan loreak ere bildu nituen, hamabost urteak aspaldi joanak zirela konturatu gabe.

Ezkontza eguna ez zen astiro hurbildu. Mingain zorrotzei etengabe zerizkien esamesen oihartzunek ez zuten gure amodioaren hormak txikitzerik. Enpresagizon ospetsua bateatik, laguntzaren premia zuen neskatxa galdua besterik, susmoen areagotzeko bere idazkaria izana. Baina lehenagotik zetorren bulegoko abentura ezkuturik asmatzen zuen oro, arrunt erratuta zebilen. Zu oso gizon jentila izan zinen, zintzoa.


Denbora aurrera zihoan bere martxa etengabe. Buruan geroz eta ilaurriago, aurpegian garoz eta zimur gehiago, hala nola gure maitasunean ere. Egun galdu batean monotoniaren urek eraman zuten maitasuna, ohartu orduko itoa zena. Ostiral gaueroko afari irteera amaitu zen lehenik, neguko hotzaren aitzakia medio. Hala ere, zuk ez zenion lagunekin libertizteari utzi; eta udaberrian ez ziren epeltasunarekin batera gure irteerak itzuli.

Bakardadearen mamuak harripatu ninduen ondoren. Haurrak eskolan, zu lanean, egun osoa bakarrik mendian galdua dagoen espetxe honetan. Etxe polita, bai, ederra, zoragarria, aurretik igarotzen den ororen inbidia. Baina inoiz ez duzu ulertu nahi izan bertatik ezinezkoa nuela inora mugitzea. Eta egun osoa bakarrik. "Ikuszazu telebista, entzun zazu irratia, egin itzazu jertseak". Konponbide erreza, ezta? Liburu eta aldizkariak ekartzen zenizkidan, errukituta edo. "Karneta? Ezta pentsatu ere!". Ez omen dago errepidean emakumezko bat baino arrisku handiagorik. "Lagunek ezer estimatzen bazaituzte, etorriko zaizkizu". Bai, eta hogei urtez itxaron dut, baina ez zait sekula inor etorri, eguneroenkarguak ekartzen dizkidan supermerkatuko morroia ezik.

Dena den, haurrak eta hirurok etxeratzen zinetenean alaitasunaren kolorea pizten zen nigan. Egoera arras garrastu zen, ostera, zure eguneroko nekeak agertu zirenean; zu etxeratzerakoan ez zitzaidan harez gerokolorerik pizten. Berandu etortzen zinen gehienetan, nekatuta oso; afaldu, telebista aurrean jezarri, haurrak ohera bidali eta behar-beharrezko hitzak besterik ez zenizkidan zuzentzen. Ez zenuen maite nire lerdokeriak entzutea eta beraz Maitaneren gelara aldegiten nuen.

Larrugoseak zeundenean, aldiz, zure hitzaldi goxo zuritua jasan behar. Eta, ahal bezain pronto gogoak asetu ondoren, buelta erdi eta lo. Inoiz ez didazu galdetu ea kontent gelditu naizenentz. Erantzuna ezezkia izango zatekeen behin eta berriro.

P. Mokordo





# ETB programazioa

## LARUNBATA, ABENDUAK 10

- 10.58 AURKEZPENEA  
11.00 \*PAUSOKA, Haurrentzako saioa  
12.00 ZIKLO KROSSA. Getxoko Ziklo Krossa.  
13.30 DENBORA PASA  
Kultu-ajenda moduan azaldurik, denbora lebreba bete eta gozatzeko aukerak eskeintzen dituen programa.  
14.00 GAUR EGUN, Albistegia  
14.15 MARRAZKI BIZIDUNAK  
14.45 BATMAN, telesaila  
15.10 ZINEA: "ESKANDALU BAT PARISEN"  
Zuzendaria: Douglas SIRK  
Antzezleak: George SANDERS, Sigen HASSO, Carole LANDIS  
Eugène-Grainçois Vidocq-ek 1775. urtean presondegian jaioa, bere bizitzako lehen 30 urteak, mota guztietako gaiztakeriak burutuz eman zituen, seguras-ki, geroago egingo zuen lanerako prestatu nahian, denborarekin Frantziako Polizia-Buru bihurtuko bait zen.  
16.45 MARRAZKI BIZIDUNAK  
17.05 KATU KALE, Musika saioa  
18.15 SPORT AUTO  
19.10 XANFARIN ETA ANDERE KING, Telesaila  
20.00 IKERLARIAK, Dokumentala  
20.30 GAUR EGUN, Albistegia  
20.45 ALLO, ALLO, Telesaila  
21.15 DOKUMENTALA  
22.10 GAUEKO PELIKULA: "QUO VADIS" (1951)  
Zuzendaria: Mervyn LeROY  
Antzezleak: Robert TAYLOR, Deborah KERR, Peter USTINOV.  
00.55 AMAIERA

## IGANDEA, ABENDUAK 11

- 10.50 AURKEZPENEA  
10.52 EGI BIDEAN  
11.00 MEZA SANTUA  
11.55 KIROLAK ZUZENEAN  
13.30 BAI HORIXE  
14.00 GAUR EGUN, Albistegia  
14.15 ABESBATZAK  
15.00 HARRIKETARRAK, Marrazki bizidunak  
15.25 BAZKAL OSTEKO ZINEA: "HAU DA ARMADA" (1943)  
Zuzendaria: Michael Curtiz  
Antzezleak: George Murphy, Ronald REAGAN, Joan LESLIE  
1943. urtean gaude; gerraren oldarra indartuz joan da eta Hollywood ere, bere tamainan, giro honen partaide izanen da; ondorioz, aberria, ohorea eta armada goraltzen dituzten filmak produzitzeari ekin zitoten. "Hau da Armada", militarren show eta erakusketa ikaragarria da, itsaso, lehor zein aire-  
tako militar ordezkariak, sekulako ikuskizun deigarria eskeintzen degutene-  
koa.  
17.25 MARRAZKI BIZIDUNAK  
17.35 TARZAN, Telesaila  
20.05 CINCINNATTI, Telesaila  
20.30 GAUR EGUN, Albistegia  
20.45 ST. ELSEWHERE OSPITALEA, Telesaila  
21.35 LOBSTER KOMEDIAK, Zine Komimkoa  
21.50 KIROLEZ KIROL  
23.20 AMAIERA

## ASTELEHENA, ABENDUAK 12

- 13.00 AURKEZPENEA  
13.02 \*KIROLEZ KIROL, kirol saioa  
14.00 GAUR EGUN, Albistegia  
14.20 HARAN HANDIA, Telesaila  
15.05 II. TXANDA: HARREMAN SAKONA, Telesaila  
16.00 AMAIERA  
18.03 AURKEZPENEA  
18.05 POLI, Haurrentzako saioa  
18.15 YOGIREN ABENTURAK, Marrazki bizidunak  
MUNDUARI BIRA 80 EGUNETAN, Marrazki bizidunak  
CHARLIE BROWN, Marrazki bizidunak  
19.10 GALDE DEBALDE  
19.40 MAGNUM, Telesaila  
20.30 GAUR EGUN, Albistegia  
21.00 DALLASA, Telesaila  
21.50 EZBAIAN, Eztabaidarako saioa  
23.00 GAUR EGUN, Albistegia  
23.15 AZKEN TXANPA, Kirol saioa  
23.30 AMAIERA

## ASTEARTEA, ABENDUAK 13

- 13.28 AURKEZPENEA

- 13.30 \*GALDE DEBALDE, Haurrentzako saioa  
14.00 GAUR EGUN, Albistegia  
14.20 HARAN HANDIA, Telesaila  
15.10 II. TXANDA: EZBAIAN  
16.15 AMAIERA  
17.58 AURKEZPENEA  
18.00 POLI, Haurrentzako saioa  
18.10 JETSONDARRAK, Marrazki bizidunak  
MUNDUARI BIRA 80 EGUNETAN, Marrazki bizidunak  
18.35 FLANNERY ETA BERE ASTAKILOAK, Marrazki bizidunak  
19.05 TXIMELETA UHARTEA, Telesaila  
19.30 PAUSOKA, Haurrentzako saioa  
20.30 GAUR EGUN, Albistegia  
21.00 BAKEGILEA, Telesaila  
21.50 KATU KALE, Musika saioa  
23.00 GAUR EGUN, Albistegia  
23.15 AZKEN TXANPA, Kirol saioa  
23.30 EGI BIDEAN  
23.40 AMAIERA

## ASTEAZKENA, ABENDUAK 14

- 13.28 AURKEZPENEA  
13.30 \*ONGITRABILIBIRA, Haurrentzako saioa  
14.00 GAUR EGUN, Albistegia  
14.20 HARAN HANDIA, Telesaila  
15.10 II. TXANDA: ABESBATZAK  
16.15 AMAIERA  
18.03 AURKEZPENEA  
18.05 POLI, Haurrentzako saioa  
18.15 IPUIN SAIOA, Marrazki bizidunak  
MUNDUARI BIRA 80 EGUNETAN, Marrazki bizidunak  
DONKEY KONG, Marrazki bizidunak  
19.05 TLETXIP  
19.35 ROBIN HOOD, Telesaila  
20.30 GAUR EGUN, Albistegia  
21.00 ZINE PANTAILA: "SCARLET STREET" (1946)  
Zuzendaria: Fritz LANG  
Antzezleak: Edward G. ROBINSON, Joan BENNETT, Dan DURYEA  
22.45 HEMEN ETA MUNDUAN, Hiriarte eta Euskadiko informazioari buruzko saioa  
23.20 GAUR EGUN, Albistegia  
23.35 AZKEN TXANPA, Kirol saioa  
23.50 AMAIERA

## OSTEGUNA, ABENDUAK 15

- 13.28 AURKEZPENEA  
13.30 \*TELETXIP, Haurrentzako saioa  
14.00 GAUR EGUN, Albistegia  
14.20 HARAN HANDIA, Telesaila  
15.10 II. TXANDA: HEMEN ETA MUNDUAN  
15.50 AMAIERA  
18.03 AURKEZPENEA  
18.05 POLI, Haurrentzako saioa  
18.15 BANAN BANAN, Haurrentzako saioa  
MUNDUARI BIRA 80 EGUNETAN, Marrazki bizidunak  
KAIXO SANDYBELL, Marrazki bizidunak  
19.10 GILEN TELL, Telesaila  
19.40 DENA ETA EZER EZ, Telesaila  
20.30 GAUR EGUN, Albistegia  
21.00 LAINO GUZTIEN AZPTTIK  
22.00 GILLERMINA EDERRA, Telesaila  
23.35 GAUR EGUN, Albistegia  
23.50 AZKEN TXANPA, Kirol saioa  
00.05 AMAIERA

## OSTIRALA, ABENDUAK 16

- 13.33 AURKEZPENEA  
13.35 \*BANAN BANAN, Haurrentzako saioa  
14.00 GAUR EGUN, Albistegia  
14.20 HARAN HANDIA, Telesaila  
15.10 II. TXANDA: LAINO GUZTIEN AZPTTIK  
16.15 AMAIERA  
17.58 AURKEZPENEA  
18.00 POLI, Haurrentzako saioa  
18.10 PREDRO ETA PABLOREN SHOW BERRIA, Marrazki bizidunak  
MUNDUARI BIRA 80 EGUNETAN, Marrazki bizidunak  
DR. SLUMP, Marrazki bizidunak  
19.05 ONGITRABILIBIRA  
19.35 ALT XORRAREN IRLARAKO ITZULERA, Telesaila  
20.30 GAUR EGUN, Albistegia  
21.00 IBIZA 92  
21.55 FAHRENHEIT  
23.00 GAUR EGUN, Albistegia  
23.20 KIROLEZ KIROL  
00.20 AMAIERA



**Ezker eskuin:** 1.-Beheratze, umil-tze. 2.-Iparraldean, adoreak. 3.-Zili-purdika. 4.-Istu, txistu. Hegazkin konpainia askotan. 5.-Fruitu biltzea. Kontsonante bikoitza. 6.-Hesteak libratzeko isurkaria. Bokala. 7.-Autoen tutua.

**Goitik behera:** 1.-Ahituak, unatuak. 2.- Zirtzil, kaxkar. 3.-Araupetua. 4.-Zenbaki bat. Iparraldean, momentuko mina adierazten duen interjekzioa. 5.- Atzizki txikigarria. Aho hitzaren bokalak. 6.- Arren sexua. Nitrogenoa. 7.- Ekartzen duena.

(Soluzioa: 15. orrialdean)

	1	2	3	4	5	6	7
1	A	P	A	L	T	Z	E
2	K	U	R	A	I	A	K
3	I	R	A	U	L	K	A
4	T	T	U	■	A	I	R
5	U	Z	T	A	■	L	L
6	A	I	U	T	A	■	E
7	K	L	A	X	O	N	A

(ELKARren ENBIDOtik hartua)

## ZER DA?... zer da?...

- 1) Beti besteak janzten ari eta bera beti biluzik dagoena?
- 2) Ipurdiarekin zangorik ez, gorputzarekin besorik ez, lepoarekin bururik ez duena?
- 3) Mintzatzen da eta mihirik ez, badabil eta zangorik ez, elurra bezala zuri eta belea bezain beltz?
- 4) Goizean lau oinetan, eguerdian oin bitan eta arratsan hiru oinetan dabilena?
- 5) Beti lehorrean eta beti bustia dagoena?
- 6) Basoan jαιο, basoan hazi, etxera etorri eta zuriz jantzi dena?
- 7) Maindire bat, harizkoa ez; guztia estaltzen du eta ura ez?
- 8) Mendi biren arteko orroa?
- 9) Atzekaldea miazkatzea aski duena, korrika abiarazteko?
- 10) Puntan punta bi, atzean zulo bi (dituena)?

(Soluzioak 15. orrialdean)

## HOROSKOPOA

**ARIES** (Martxoaren 21etik Apirilaren 20ra)

Aste honetan zure ezinegona areagotu egingo da. Lagun berriak egiteko aukera izango duzu.

**TAURUS** (Apirilaren 21etik Maiatzaren 20ra)

Zure proiektu horiek aurrera egingo dute, kostata baina. Amodio kontutan ez duzu zorterik izango.

**GEMINI** (Maiatzaren 21etik Ekainaren 21era)

Kontuz ibil zaitez, osasunak ez dizu lagunduko eta. Gehiegi jaten duzu azkenaldi honetan. Whiskyari ez badiozu uzten, zureak egin du.

**CANCER** (Ekainaren 22tik Uztailaren 21era)

Urduri samar ibiliko zara. Sorpresa ederren bat ere izango duzu. Jokatu gutxiago eta egin lan gehiago.

**LEO** (Uztailaren 23tik Abuztuaren 23ra)

Maitasun arloan gehiago saiatu beharko duzu, benetan nahi duzuna lortzeko, eta txapeltxoak ahaztu barik.

**VIRGO** (Abuztuaren 24etik Irailaren 23ra)

Gauza gehiegi duzu buruan eta zoroaren pare zabilta, ganoraz ezeri heldu gabe.

**LIBRA** (Irailaren 24etik Urriaren 23ra)

Lanak itota ibiliko zara. Oporrak hartu eta jo Kariberantz edo.

**SCORPIO** (Urriaren 24etik Azaroaren 22ra)

Gustoko gauzak egiteko astia eta aukera izango duzu. Ez erosi txokolatea, adarra joko dizute eta.

**SAGITARIUS** (Azaroaren 23tik Abenduaren 21era)

Familiarekin haserrealdiren bat edo beste izango duzu. Onena, kasurik ez egitea.

**CAPRICORN** (Abenduaren 22tik Urtarrilaren 20ra)


Gogoratzen duzu noiz ligatu zenuen azkenengo aldiz? Espabilatu!!!

**AQUARIUS** (Urtarrilaren 21etik Otsailaren 19ra)

Zure itxurak asko kezkatuko zaitu eta dotore azalduko zara guztietan.

**PISCIS** (Otsailaren 20tik Martxoaren 20ra)

Manbo, salsa eta tango. Zu ez kezkatu eta jarraitu horrela. Ez garela etorri mundu honetara sufritzera!!!





☛ **Zenbat euskara erabiltzen den Udaletxean**

Gai hau alde askotatik aztertu badaiteke ere, hemen erreferentzi moduan "sartu-irten" egiten diren idazkiak hartuko ditugu kontutan. Sarrerei dagokienez, 1985 urtean Udaletxean aurkeztu ziren 2.834 idazkietatik 88 bakarrik aurkeztu baziren euskara hutsez (%3,11), 1987 urtean 2.604 idazkietatik 201 (%7,71) izan dira euskarazkoak. Irteerei dagokienez, berriz, 1985 urtean %1,19 izan dira euskerazkoak eta 1987.ean, aldiz, %9,68. Gorakada nabarmena, beraz. Martxa honetan segiz gero, posible da hamar-hogei urtetan euskara hutsezko udal-administrazioa lortzea.

☛ **Zenbat ostatu dagoen Arrasaten**

Gipuzkoako hoteletan guztira 2.130 gela daude. Hostaletan, berriz, 769. Arrasaten, ordea, guztira 29 gela besterik ez. Egunero beteta egongo direla suposatzen dugu.

☛ **Zein hizkuntzatan ikasten duten Arrasateko umeek**

O.H.O.ko irakaskuntzari dagokionez, hauek dira 1987-88 ikasturteko datuak: A ereduan (erderaz) %23,62; B ereduan (elebiduna) %45,75 eta D ereduan (euskaraz) %30,62. Azken eredu hau urtez urte mantentzen ari den bitartean, aurrenekoa (A) desagertuz doa.

☛ **Zenbat ikasle berri sartu diren 1988-89 ikasturtean Eskola Politeknikoan**

Aurten 499 ikasle berri izan dira onartuak. Aurreko urteetakoak kontutan hartuz gero, guztira ia 10 mila ikasle dira lanbilde Heziketa edo Injinerutzan irakaskuntza aratuak hartu dituzten ikasleak.


☛ **Arrasateri dagozkion azken urteotako migrazioen joerak zeintzuk diren**

1986ko Apiriletik 1988ko Maiatzera bitartean, Arrasatetik 660

pertsona joan da eta bertara 288 etorri da. Biztanle-kopurua, beraz, 372 pertsonatan jaitxi da. Joan direnetatik, 350 pertsona Euskal Herriko hirietara mugitu da: gehienak (176) Arabako Gasteizera, 133 Gipuzkoako beste herrietara, 30 Bizkaitara eta 11 besterik ez Nafarroara. Beste 316 pertsona Espainia aldera joan da, beren sorterrietara itzultzeko gehienetan. Arrasatera bizitzera etorritako gehienak, 191 Euskal Herritik bertatik iritsi dira. 129 Gipuzkoatik, 24 Arabatik, 30 Bizkaitik eta 8 Nafarroatik.

☛ **Zenbat etxebizitza dagoen Arrasaten**

Gure herrian 7.893 etxebizitza dago. Hauetatik 1.013 hutsik. Zurrumurruek badira laster etxe sail berriak eraikiko ote diren. Premia denik ezin uka. Arrasateko indizea %29,94 den bitartean, Euskal Herrikoa %35,19 da eta Espainiakoa %39,14.



**HERRI IRRATIA**

**DONOSTIA - LOIOLA**

**GEURE HERRIAREN OIHARTZUNA**